



ARGIA

LORENA CABNAL
FEMINISTA MAIA-XINKAK
HERIOTZA MEHATXUPEAN
BORROKAN



EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO

ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA

Urte osoko harpidetza	
☐ ARGIA ASTERO, hilean 12€ baino ez.	Urteko prezioa: 12€
☐ ARGIA HAMABOSTERO, hilean 7€ baino gutxiago.	Urteko prezioa: 7€
☐ ARGIA HILERO, hilean 4€ baino gutxiago.	Urteko prezioa: 4€



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Baleren Bakaikoa Azurmendi
- 20 Juan Ramon Makuso
- 21 Oier Araolaza
Itxaro Borda
- 22 Andoni Mujika



40 urte dira Jurramendiko erasoak gertatu zirela. Nortzuk izan ziren egileak?

(ARGAZKIA: JOSU CHUECA)

- 40 BIZI BARATZEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
SERGE MONGEAU
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Lorena Cabnal: "Ez naiz hilko tristatuta, ez biktimizatuta" / Danele Sarriguarte Mochales
- 24 | Jurramendi 1976... eta hiltzen jarraitu zuten / Josu Chueca
- 29 | Prostituzioaren begiradak: "Guztiak ez gara biktimak" / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 30 | Nola jarri jokoan adimen mota guztiak / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 34 | Jordi Via, ekonomia soziala erakundeetatik bultzatzen Katalunian / I. Zubiria Etxeberria, L. Arretxea Bereziartua
- 37 | Jendeok iratzartzen bagara, iratzarriko da Euskal Herria / Mikel Asurmendi
- 38 | Hizkuntzan ere, kirol hezitzaileak haurren eredu / Malen Aldalur Azpillaga
- 44 | Joxe Mari Lopetegi: Irunen Errepublikak bazekien bertsotan / Gorka Bereziartua Mitxelena

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean. Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Malgutasuna ala konfrontazioa?

Enpresariek eta langileek elkarrekin arraun egiteko garaia dela uste du Confefaskek, lan erreforma berriaren aurrean langileek malgutasunez jokatzekoa. Sindikatuek, aldiz, Maiatzaren Lehena baliatu dute prekarietatea eta konfrontazioa kalera ateratzeko. Halere, afiliatuak oinarri dituzten sindikatuak zail egin zaie sektore prekarioekin konektatzea: etxeko langileak, etorkinak, emakumeak, gazteak, aldi baterako kontratadunak.... Lan-merkatuak baztertutako pertsonen batasuna erronkatzat hartu dute, eredu kapitalistaren aurpegirik lazarriena hor ikusten dutelako Euskal Herrian.

Argazkia: Dani Blanco

Donald's



**“Zizareak gehiago
produzitzen du
traktoreak baino”**

Ainhizen izan da Marcel
Bouché agronomoa,
Euskal Herriko Laborantza
Ganbarak gonbidaturik

argia.eus/multimedia




**Plus Ultra,
frankismoaren
arrastoak**

Frankismo garaiko ikurrak eta
oroimen historikoari buruz-
ko dokumentala, Espainiako
Ogasunak Bilbon duen eraiki-
neko armarrria oinarri hartuta.



**Herriak euren
komunikazioaren
jabe**

Eraldaketa soziala eta tokian
tokiko kultura eta hizkuntzak
bultzatzeko jatorrizko herrien
komunikabideen garrantziaz.



Filtratutako dokumentuen lagin bat Alemaniako Parlamentuko horman proiektatu
zuen Greenpeacek maiatzaren 1ean.

RUBEN NEUGEBAUER / GREENPEACE

TTIPen agiri ezkututak argitara eman ditu Greenpeacek

Unai Brea
@unaibrea

Lehenbiziko aldiz publiko egin da AEBen
posizioa TTIP merkataritza hitzarmenaren
negoiazioetan, Herbehereetako
Greenpeacek jaso eta zabaldutako filtrazio
bati esker. Talde ekologistak adierazi duenez,
lortu dituen dokumentuak (248 orrialde
guztira) apirilaren 25etik 29ra AEBek eta
Europako Batzordeak New Yorken egindako
negoiazio errondari dagozkie. “Agiriok
argi erakusten dute enpresen irabaziak
herritarren interesen gainetik jartzeko
borondatea dutela”, salatu dute.

Greenpeacek zabaldutako lehenbiziko
balorazioaren arabera, dokumentuetan
ez da aipatzen klima aldaketari aurre
egiteko beharra, ez eta ere GATT akordioko

Salbuespen Orokorren araua, zeinaren
arabera estatuak merkataritzari buruzko
arauak betetzeaz salbuetsita leudekeen
ingurumena eta pertsonen osasunaren
babesa jokoan balego.

Halaber, European indarrean dagoen
zuhurtzia printzipioa behin ere ez dela
aipatzen nabarmendu du Greenpeacek.
Bai, ordea, AEBek substantzia arriskutsuak
arautzeko egindako proposamena, haien
debekua asko zailduko lukeena.

Bestalde, zabaldutako agiriak erakusten
dute zer nolako boterea ematen zaien
korporazio handiei erabaki politikoetan parte
hartzeko. Talde negoziatzaileek “behin eta
berriro azpimarratzen dute industriarekin
kontsultak egiteko beharra”, Greenpeacen
esanetan. Agiriak osorik ikusteko webgune
bat sortu dute: www.ttip-leaks.org.

“Egun, euskaraz argitaratzen den
publizitate guztia gaztelaniaz sortua da”


ALBERTO BARANDIARAN, HEKIMEN ELKARTEKO ZUZENDARIA

2015arekiko, erdira jaitsiko du euskarazko hedabideetako publizitate instituzionala Gipuzkoako
Aldundiak, 568.702 eurotik 235.000ra. Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteko zuzendariaren-
tzat, “instituzio publiko batek euskara hautatzen duenean bere irudi publikoaren hizkuntza nagusi
gisa, mezu bikoitza bidaltzen dio gizarteari: informazio publikoa euskaraz emateko borondatea,
eta euskarazko hedabideak egokiak direla informazio hori zabaltzeko”. **BERRIA (2016/04/27)**



Ikusten ez den ur kontsumoa


EGUNEROKO PRODUKTUAK EKOIZTEKO ZENBAT LITRO BALIATZEN DEN (l/kg)





• Behi okela: 15.415 • Behi-larrua: 17.093 • Txokolatea: 17.196




• Biodiesela: 11.397 (l/l)
• Ardikia: 10.412
• Kotoia: 10.000
(8.000 litro behar dira
praka bat produzitzeko)




• Zerrikia: 5.988 • Gurina: 5.553
• Esne-hautsa: 4.745 • Oilaskoa: 4.325



• Olibak: 3.015 • Gazta: 3.178 • Arrautza: 3.266
(196 litro 60 gr. inguruko arrautzako)



• Arroz: 2.497 • Artoz eginiko bioethanola: 2.854 l/l • Pasta: 1.849
• Kanabera azukrea: 1.782 • Ogia: 1.608 • Artoa: 1.222
• Muxika edo nektarina: 910 • Sagarra: 822 • Banana: 790
• Laranja: 560 • Garagardoa: 296 • Patata: 287 • Tomatea: 214





MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Jada 120 dira LH 3ko proba ez egitea erabaki duten eskolak

Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

Ikastetxe ugaritan irakasle klaustroa bilzteke dago oraindik, baina Eusko Jaurlaritzak proposatutako Lehen Hezkuntzako 3. mailako azterketa ez egitea adostu dute jada 120 ikastetxetan, Hezkuntza Plataformen Topagunearen arabera. Nafarroan ere bada mugimendurik 3. eta 6. mailako azterketen kontra.

LHko 3. mailako ebaluazio-diagnostikoa, Heziberri planean jaso, hautazkoa dela esan du Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak. Ardura guztia ikastetxearen bizkar uztea kritikatu dute, ordea, sindikatu eta guraso elkarteek. Ikastetxe batzuetan zuzendaritzak hartu du edo hartuko du erabakia, beste batzuetan irakasle klaustroak, eta bada Eskola Kontseiluan erabakiko duenik ere. Proba egitea adostuz gero, bi aukera daude: ISEI-IVEI (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) eta Berritzeguneek batera prestatu duten eredu, edo ikastetxeak berak prestatutako azterketa. Bigarren kasu horretan, emaitzak ez lirake aintzat hartuko diagnostikorako. Malgutasun horren pean ikastetxe ahalik eta gehienetan azterketa egin dezatela lortzea –eta beraz “helburua lortu dutela esatea”– da Jaurlaritzaren asmoa, sindikatu eta guraso elkarteek iritziz. Hautazkoa izan arren, proba egin dezaten “ikuskarrien aldetik presio handia” egon dela gaineratu dute Steilas irakasle sindikatutik. Maiatzean zehar egingo dira proba hauek, eta maiatzaren 27 da emaitza-datuak sartzeko azken eguna.

Gurasoek planto egin dezakete

Ikastetxeak deliberatu dezake azterketa egitea, baina ikasle baten gurasoek edo gehiagok planto egitea erabaki dezakete (iaz bezala), proba ez egitea alegia, eta euren seme-alaben prozesu akademikoan ez luke inolako ondoriorik izango.

Probaren aurka dago EHIGE eskola publikoko gurasoen elkarte (LHko 340 bat ikastetxe publiko daude EAEn). “Proba horren beharrezkotasunik” ez dutela ikusten dio Ikastolen Elkarteak (LHko 55 bat ikastola daude EAEn). Kristau-eskolen kasuan, “printzipioz ez dugu probaren ez alde ez kontra egiten, ikastetxe bakoitzak erabaki dezala; gu beti legeak esaten duena konpliztearen alde gaude” (EAEn 133 kristau-eskola ari dira Derrigorrezko Hezkuntzan).

Nafarroan, 6. mailakoei ere azterketa

EAEn bezala, Nafarroan ere ebaluazio diagnostikoa eta hautazkoa izango da 3. mailan, ikastetxearen bizkar. Egiteko asmorik ez dutenen daturik ez da bildu Nafarroan, baina adibidez Sortzen euskal eskola publiko berriaren barruko ikastetxeek ezezko jarri agertu dute. LH duten 177 ikastetxe daude Nafarroan sare publikoan, eta beste 15 ikastola. Horrez gain, 6. mailan ere egingo da proba bat, Nafarroako Gobernuak berak diseinatu. “Ez dakigu itxurakeria ez ote den. Gure ikasleen konpetentziak aztertzeko ebaluazio propioa ez dugu gaizki ikusten, baina behar eta asmoak ondo definitzea eskatzen dugu; susmagarria da LOMCEk eskatzen duen adin berberetan planteatzea ordezkotako azterketak”, dio Kepa Yécora Nafarroako Steilasko kideak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gure industria defendatu



Juan Mari Arregi

Azkeneko hilabeteak erakusten ari dira ez dela egia egoera ekonomikoa hoberantz joan eta industria krisiaren tuneletik irteten ari denik, administrazio publikoak –Iñigo Urkulluk zuzentzen duena barne– hori haizatu nahi duen arren. Azken egunotan bi ekitaldi garrantzitsu izan ditugu: euskal sindikatuak Bilbon deituriko manifestazioa eta Maiatzaren Lehen. Bi kasuetan langile klaseak eta herritarrek egungo egoera salatu dute eta eskatu dute gure industria defendatzeko, garai berrietara egokitutako politiken bidez. Desindustrializazioak gehien zigortutako eskualdeetako langileek (Ezkerrekoa, Oarsoaldea, Aiara, Sakana...) hartu dute parte manifestazioetan. Datu estatistiko bat: 2007tik 2013ra euskal industriak 75.000 lanpostu galdu ditu, eta 2013tik hona beste milaka batzuk izan dira.

Herri batek ez du etorkizunik industriarik gabe. Gure industria defendatzeko, soinean dituen egiturazko arazoak aztertu behar dira, soilik horrela aurkituko baititugu irtenbideak: dibertsifikazio falta, multinazionalen menpekotasuna, sektore tradizionalen gehiegizko pisa, finantziario falta, jabetzaren eta produkzio zentroen deslokalizazioa, eta gakoak diren alorretan botere publikoen parte-hartze eskasa.

Administrazioek eta aurrezki kuttex euren partaidetza saldu dituzte enplegu-sustatzaile diren hainbat enpresatan, Arcelor kasu, eta hori ez da gure industria defendatzea. Euren etorkizuna multinazionalen esku uztea da hori. Orain kezu gara enpresen jabetza eta erabakiguneak deslokalizatzen ari direlako, eta hori ez da gertatzen ari soilik altzairuaren munduan. Gure industria defendatzeko alferrik da propaganda egin eta Confebasken bozeramaile izatea.



DANI BLANCO

Donostiako arrantzaleen lonja okupatu dute, kaiaren pribatizazioa salatzen

DONOSTIA. “Behinola arrantza portu izandakoa aisialdiko eremu elitista bilakatzeko asmoak ekinean dira, kirol portuaren bidez”, salatu dute dozenaka lagunek Donostian maiatzaren lehenean, arrantzaleen lonja izandakoa sinbolikoki okupatuz. Ertzaintzaren hainbat furgoneta azkar agertu dira, eta eraikinaren goialdean zeuden herritarrak beren kasa jaitsi ondoren, egun osoko egitaraua aurrera atera dute. Azken hamarkadetan Donostian garatzen ari diren hiri eredua salatu dute, kaiaren pribatizazioa adibide gisa hartuz eta Europako Kultur Hiriburutzaren testuinguruan kokatuz. “Donostiako kaia, kaiko auzotarrena eta donostiar ororen izatea nahi dugu, ez Donostiaren erdigunean aparkaleku bat izan nahi duten gutxi horiena”.

Zergatik ez Harkaitz izeneko neska?

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Izena eta izana ezbaian gida praktikoa aurkeztu dute Bilgune Feministak eta Emaginek. Euskarazko izendegiaren binarismoaren inguruko gogoeta piztu nahi dute.

Neska edo mutila

Euskaltzaindiak Espainiako Estatuko arauari segitu dio. Izenak argitu behar du izendatua emakumea ala gizona den. Beraz, ez da lehen bezain erraza neskari Amets izena jartzea edo mutilarik Itxaso.

Lorea nolakoa da?

Lorea entzunda iruditeria bat etortzen zaigu burura, besteak beste neska dela. Hala dio Libe Eizagirrek: “Mundua geldituko al da ‘Hodei!’ esan eta neska batek eta mutil batek bihurtzen badute aurpegia?”.

Desobedientzia

Jaioberria nahi duzun izenez erregistratzeko estrategiak bildu dituzte gida praktikoa. Estrategia horietako bat da genero markarik gabeko izenak asmatzea. Zergatik ez Ulia, Haika, Sen, Iraun, Aske, Irail, Maiatz, Biok...?

HERRI ELKARGOA



149.390

herritarrek baino gehiagok bozkatu dute jada Ipar Euskal Herrian Herri Elkargo bakarra osatzearen alde. Beraz, prefetarak jarritako lehen baldintza bete da.

79

herrian baiezko botoa gailentzea da bigarren baldintza (158 herrien erdietan). Orain arte 82tan bozkatu dute: 64k alde, 19k aurka.



BI ERRAUSTEGI PROIEKTU GELDIARAZI DITUZTE

Hamabost eguneko tartean bi erraustegi proiektu utzi dituzte Txinako agintariek, inguruko herritarren protesta bortitzek eraginda.



LANPOSTUEN PROMESATIK EMIGRATZEA PROPOSATZERA

“Enpresen egungo esparrua merkatu globala da”, adierazi du Iñigo Urkullu lehendakariak, eta atzerrira joatea proposatu die gazteei, “itzultzeko helburuarekin”. 2012an, gazteen enplegua bultzatzeko konpromisoa hartu zuen EAJk, gazteek ikasketak amaitutakoan atzerrira joan behar ez izateko.



“ATERTU ARTE ITXARON”, SARITUA

Euskal Literaturazaleen 111 Akademiako kideek Katixa Agirre gasteiztarren *Atertu arte itxaron* eleberria izendatu dute iazko obrarik gogokoena. 197 lagunek hartu dute parte bozketan.

Guztiak Podemos eta IUri begira



Xabier Letona

@xletona

HAUTESKUNDE KANPAINA abiatu da dagoeneko Espainiako Estatuan, nahiz eta ofizialki ez den hasiko ekainaren 10a arte. Luzea izango da eta oraindik ezin jakin apal edo grinatsu etorriko den. Klabe garrantzitsuenak ezkerreko indarren arteko bateratzean egongo da, hau da, Podemosek eta IUK azkenean bat egingo duten ala ez. Aste hau giltzarri izango da horretarako, datorren maiatzaren 13rako koalizioak aurkezteko epea amaituko baita. 5,2 milioi boto iritsi ziren Podemos eta bere inguruko hautagaitzak, eta ia milioi batera IU. PSOEek 5,5 milioi boto lortu zituen.

Helburua garbia da, PSOEri aurre hartu eta honekin batera Madrileko Gobernua hartzeko diputatu kopurua lortzea. Horretarako balizko koalizioak ezkerreko boto emaileen erakartzea lortu beharko luke PSOE gehiagi hustu bari. Udal hauteskundeetako aurrekaria hor dago, herritarren batasunaren formulak arrakastatsuak izan ziren lurralde ugari eta ondorengo aliantzak ere bai hainbatetan –Aragoi, Valentzia...–.

Espainiako Gobernua, dena den, bestelako kontua dela ikusi da azken bost hilabeteetan. Lehenbizi, beraz, zantzarik handiena argitu beharko da aste honetan eta ondoren ikusiko da zenbakiek zertara bultzatzen duten Espainiako egoera politikoa: Greziako Syrizen bidea nagusituko den, Portugalekoa edo Alemaniakoa. Denak adierazten du PP-ren alternatiba izatekotan, gehiago joko dela Portugalgoaren norabidean, garai bateko posiziotik oso urrun egon da ere, oraindik PSOE baita Espainiako bigarren indarra.

EUSKAL HERRIAN ere nabaritutako litzateke Espainiako ezkerreko koalizioaren eragina, batez ere EH Bilduren. Iragan abenduaren 20ko atakatik oso



egoera larrian atera zen eta lehen helburua emaitza ez okertzea litzateke. Podemosen eragina handia izan bada, pentsa liteke Podemos-IUren balizko aliantzak are eta boto emaile gehiago erakar dezakeela bere arrantza esparrutik. Funtsean, ezkerreko boto emaileen ihesa bere topera heldu den ala ez ikusiko litzateke. Bestelako emaitzak izaten diren arren, seguruenik Eusko Legebiltzarreko hauteskundearen laborategi txikia ere izango dira ekainaren 26koak.

NAFARROAN ere aldaketak izan daitezkeela dirudi, batez ere esparru abertzailean. EH Bilduk egin du proposamena jada Foru Gobernua sostengatzen duten lau indarrak elkarrekin aurkez daitez. Geroa Baik adierazi du gustuko lukeela lau indarren bateratzea. Ahal Duguk ostiral honetan du gaiaz hitz egiteko batzarra, eta Izquierda-Ezkerrak Ahal Duguk egiten duena egingo luke seguruenik.

Ezin da ezer baztertu, baina Espainian ezkerreko bateratzeak ematen duenari begira dago Nafarroa ere. UPNk eta

PSNk 3 diputatu –2 eta 1– lortu zituzten abenduaren 20an eta 2 Ahal Duguk. Emaitzak aldrebes janztea litzateke gutxieneko helburua, hau da, UPN eta PSNk 2 lortzea eta aldaketaren aldeko indarrek 3. Ahal Dugu, EH Bildu, Geroa Bai eta I-E elkarrekin aurkeztuko balira, posible litzateke hiru eskuratzea, baldin eta gutxienez abenduko botoak eskuratuko balituzkete.

Onuragarriena hori litzateke, zantzarik gabe, baina gaitzena ere bai, batez ere Ahal Dugu eta Ezkerratik egon daitezkeen erresistentziengatik. Beste formula bi eta biko litzateke, Geroa Bai eta EH Bildu batetik, eta Ahal Dugu eta Ezkerra bestetik. Boto kopuru gehiago lortuko lirateke seguruenik, baina ez UPNri bigarrenaren kantzeko adina. Hau da, egungo Ahal Duguren diputatu bat koalizio abertzalera pasatuko litzatekeela eta listo.

Indar politikoak ez dira esperimentazioen lagun, baina, formulak formula, hauteskunde hauetan Nafarroan koalizioek ez dute ezer galtzeko eta bai asko irabazteko. ■

URTEBETEKO PRESTIGE EUSKAL HERRIAH:
ESPAINIAR POLIZIAREN KOARTELAK
PETROLIOZ KUTSATZEN DU LUZAIDETIK
DONIBANE GARAZIRAINOKO UHALDEA

EZ, HAUZU
SALATUKO
ARAZ ?

HIDRO-KARBURUOK
direla, mamuazel !

XURGADA BAT ?

SAR
BALAKIO !!!

CK

Emakumeen gorputzak gudu-zelai: Mukwege doktorearen lekukotza



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Genevan (Suitza) Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubideen batzordeak martxoan aztertu ditu azken hamarkadotan Kongo ekialdeko gerretan alde bateko eta besteko gerlariak emakumeen kontra egindako krimenak. Agintari politikoen ondoan, mintzatu da Denis Mukwege ginekologoa, zauritutako emakumeentzako klinika berezia kudeatzen duena, liburu eta filmek munduan ezagutarazi dutena.



Otsailean hasi dira aurkezten European barrena eta DVDan ere eros daiteke, frantsesez eta ingelesez: "Emakumeak konpontzen dituen gizona: Hipokratesen haserrea". Thierry Michel eta Collette Braeckmanek filmean bildu dute 2014an Sajarov saria merezi izan zuen Denis Mukwege doktorearen ibilbidea. Zehazkiago, Mukwege famatuari lagundu diote lau haizeetara ezagutarazten gerrarako arma beldurgarri bezain ez-kutatua: emakumeen kontrako sexu erasoak.

Milaka emakume bortxatu dituzte bateko eta besteko gudariak 20 urteotako gerretan Kongoko ekialdean. Planetako zokorik aberatsena izan arren munduko biztanlerik txiroenak dauzkan Kongon. Bukavuko ospitaletik kontatuz emakumeei XXI. mendeko gerretan zer nolako izugarriak egiten zaizkien –gero ospitaletan ahal bezala osatzen ahalegintzen direnak–, Mukwegek lortu du azkenean Nazio Batuen eta zenbait erakunderen begiak erakartzea Kongoraino. Baina, garrantzitsuena dena, bertako emakumeak berak hasi dira madarikazioa hautsirik hitz egiten egun argitan. Hauek baitira protagonistak, ez zirujaua.

Bukavun 1955ean sortua, apez pente-kostalista baten seme, auzoko Burundin egin zituen medikuntzako ikasketak, pediatrian berezituz. Emakumeek erditzean jasaten dituzten arazoez kezkatuta, lortu zuen Frantzian ikastea ginekologia, berriro itzultzeko artean Zaire deitzen zen Kongora, Hego Kivu eskualdeko klinika batera.

Kivun egokituko zitzaion 1996an gerra zibilak bete-betean harrapatzea. Hainbat txikizio eta hilketa ikustea aski ez bazen, bera hiltzeko ahaleginez gain, Mukwegek goiz batean Lemera herriko ospitalea suntsituta aurkitu zuen, bertan aterpetutako gaixo guztiak hilik. Kivutik ihesi, 1999an itzuli zen bere sorterrri Bukavura, Panzi herrian abiarazteko klinika berri bat.

Mukwegek kontatzen du nola 1999an ekarri zioten ospitalera emakume bat organo genitalak tiroka birrinduta zekartzana. Ahal bezala artatuz, basakeria bakantzat hartu omen zuen ginekologoak. "Baina sei hilabeteren buruan ohartu nintzen beste andrazko askorekin errepikatzen zela: 'Bortxatu egin naute, eta gero baioneta bat sartu baginan! Bortxatu egin naute eta ondoren aluan kautxua sutu!'..."

Horrela jabetu zen garai hartan Kinshasako gobernuaren eta bere aurkako talde armatuen arteko gatazka odoltsuan gerrako armatzat usu erabiltzen zirela bortxaketa eta emakumeen organo genitalen suntsiketa. Mukwege eta bere taldea gero eta gehiago zentratu ziren sexu bortizkeria jasandako biktimon matxurak konpontzeko kirurgia ikasi eta praktikatzeko. Urteotan 40.000 emakume artatu dituztela dio Nazio Batuen Erakundeak Mukwegeren ohorezko dokumentazioan.

Human Rights Watch GKEk duela bi urte plazaratutako *'La guerre dans la guerre : violence sexuelle contre les fem-*

mes et les filles dans l'est du Congo' agiriak deskribatzen du nola alde guztiek Kongon erabili duten sexu bortizkeria, baina aitortzen ere ezin dela jakin zenbat diren biktimak, dozenaka milaka direla segurtatuz. Hasteko, Kongoko gerretan zenbat jende hil den ere ez dakigu zehaztasunez, bost milioi arteko kopurua aipatzen dute aditu batzuek... Bestetik, sarritan beren komunitateak ere baztertzen dituen biktimentzako tabua horretaz hitz egitea.

Mukwegek dioenez, "guk artatu ditugun emakumeen kopurua ez da icebergaren muturra baizik. Bortxatu dituztela aitortzeko beldurrez bizi dira asko, ondoren senarrak arbuiautuko dituen kezka". Gizartean hain dago sus-traitua tabua, ezen eta usu biktima eta erasotzailea elkarren hurbil bizi baitira: "Emakumeak ezagutzen du aurreko etxean bizi den gizon hori, goizero gurutzatzen du, baina tamalez honek ez du sekula krimena bere gain hartu behar izan".

Bortxaketa, jendeak izuarazteko arma

Panziko klinikan hasieran mediku eta erizainak zentratu ziren bortxaketan egindako zauri eta txikizioak kirurgiaz konpontzen, ohartu ziren arte ez zela aski. "Emakume askok, zauriak sendatu ondoren ere, uko egiten zioten jateari, edateari, bizitzeari... eta azkenean hil egiten ziren halako suizidio gogo batez bezala". Psikologo eta gizarte laguntzai-



'L'homme qui repare les femmes: La colere d'Hippocrates' filmeko irudietako batean, Denis Mukwege ginekologoa Panziko (Kongoko ekialdea) ospitalean artatutako emakume sail baten erdian. Hasierako debekuaeren ondotik, otsailean estreinatu dute dokumentala Kongon bertan, eta telebista publikoak ere eskaini du. Kinshasan, Lumumbashin, Bukavun eta abarretan egin diren aurkezpenetan ikusleak hunkiturik mintzatu dira dokumentala bukatutakoan, harrituak ere bai, halako basakeriak inguruan gertatzen direla jakinda. Mukwege doktoreak Bukavun oroitarazi die bortxaketatik sortutako milaka haur apatridak ez ahazteko, etorkizuneko bonbak direlako.

leak ekarri zituzten, emakumeekin lan egiteko kirurgiari ekin aurretik.

Zenbait GKeren laguntzak egiten du posible bai Panziko ospitaleko lana eta klinikatik irten ostean emakumeen jarrera egitea, hein batean diruz ere lagunduz biktimei beren gizartean berriro txertatzen. Halako klinika juridiko bat ere antolatu da, auzitara jo nahi duten biktimei laguntzeko.

Mukwege doktorea hiltzen ahalegin du dira behin baino gehiagotan, azkena 2012an, eta gaur egun Nazio Batuen Erakundearen kasko urdinen babespean dira bera eta Panziko ospitalea. Mukwegerekin ari diren erizain eta laguntzaile guztiek ez dute zorte bera izan eta batzuk bortxatuak izan dira.

L'homme qui repare les femmes filmaren egile Thierry Michel eta Colette Braeckmanek oroitarazten dutenez,

Kongoko gerra odoltsuak oso oihartzun mediatiko mugatua izan du. Kolorerik ere ez Ekialde Hurbileko gerrekin, izan Palestinakoa, Siriakoa edo Irakekoa, oso irudi gutxi iritsi dira Kongotik, nahiz eta azken hamarkadotako gatazkarik odoltsuena izan, hein handi batean hango lurpean dautzan mineralen kontrolak eraginik. Irudirik eta oihartzunik ezean, basakeria are latzagoak burutu dira Afrikako oihanotan.

Emakume helduez gain neskato eta baita haurrak ere bortxatzea ohikoa da Kongo ekialdeko gerran, nahiz eta azken aldi honetan guduek baretzera jo duten. "Emakumeen gorputzak benetako gudu zelai bihurtu dituzte eta bortxaketa gerrako armatzat erabili", dio Mukwegek. "Bortxatutako emakume bakoitzean ikusten dut nire emaztea. Bortxatutako ama bakoitza da nire ama eta bortxatu-

tako ume bakoitza nire haurra. Hainbeste denbora galdu dugunez bortizkeriaren kalteak konpontzen, garaia iritsi da horren kausak zaintzen hasteko".

Filmarekin batera plazaratu dute liburu bat ere, *Le viol, un arme de terreur*, Mukwegek landu duen ildoan sakonduz. Bertan aztertzen da, tartean, nolaz diren hain nagiak hedabideak emakumeei eta haurrei egindako krimenok jorrazterakoan.

Zenbait erakunde humanitariari aurpegiaritzen baldin bazaio horiek instrumentalizatzen dituztela herritarren begietan deigarriak direlako, prentsak leku gutxi eskaintzen die eta azkar desagerrarazten begien aurretik. Kazetari batek kontatu du erredakzioburuak erantzun ziona artikulua proposatutakoan: "Bortxaketak? Duela gutxi egin genuen beste albiste bat horrekin". ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Lorena Cabnal, feminista komunitarioa

«Ez naiz hilko tristatuta, ez biktimizatuta»

Ez darabiltzagu terminologia berberak, mundu-ikuskera diferenteak ditugulako abiapuntu. Baina elkar aditzen hasita, denbora pixka bat emanda, aise ikus daiteke nola gurutzatzen duten elkar Lorena Cabnal feministaren bideak eta gureak. Adibide baterako, gorputzaz hitz egin dugu: gure territorio libre, gure gudu-zelai.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Feminista komunitariotzat duzu zure burua. Zertan datza?

Gaur egun feminismo komunitarioa izendatzen dugun horrek hainbat korrante feministatako ezaugarriak biltzen ditu, baina ez zaigu inondik iritsi, guk geuk harilkatu dugu; Guatemalako kasuaz ari naiz, betiere. Niretzat proposamen politikoa da, kosmogonikoa eta espirituala, eta emakume indigenak ditu oinarri.

Gure helburua ez zen feminismo korrante bat eraikitzea. Haserre geunden eta galderak egiten hasi ginen: hain gaizki bizi izan al gara emakume indigenok beti? Zergatik gara gu pobretuenak? Zergatik ezin gara osasungintzara iritsi? Zergatik hainbeste lan, zergatik hainbeste neke, zergatik gaude hain zahartuta? Beste herri batzuetako emakume indigenei begiratu eta ikusi genuen haiek ere oso gaizki zeudela. Beraz, hausnarketa sakonak abiatu ziren gorputz pobretuetatik, gure zapalkuntzak interpretatzeko.

Nola hasi zineten biltzen eta lanean?

Feminismo komunitarioaren hasierako leloetako bat da gure lehen lurraldea-

ren defentsa, gorputzarena. Komunitate indigenetan neska pila bat bortxatzen zituzten eta beldur ginen. 2005ean, indarkeria sexuala salatzen hasi ginen, esaten gure buruak defenditu behar genituela, gure lurraldea bezala. Guretzat gorputza bizitzaren espazio esanahidun bat da.

Klandestinoki ekin genion lanari, 2003 inguruan. Konturatu ginen Xalapaneke komunitatean bost tokitan baino ez zirela biltzen emakumeak, nolabait esatearren, komunitatearen baitanekin: ura ekartzeko, egurra ekartzeko, ogia egiteko, baratzeria joateko eta elizara joateko. Orduan, nola justifikatu genezakeen emakumeak batzea? María Andrea Serranori eta bioi loreak egitea okurritu zitzaigun, hildakoen hilibietara eramateko. Garaian ez genezakeen loreak egiten ere, baina emakume pila bat elkartu ginen, 370 inguru. Loreak egin bitartean ateratzen ziren benetan landu nahi genituen gaiak, adibidez, zergatik geneuzkan hainbeste ume -50 urtetik beherako emakumeek batez beste hamaika ume zeuzkaten-, edo indarkeria sexualaren gaia, oso naturaldua baitago.

Lurraldearen defentsak berebiziko garrantzia du zuen proposamenean. Zergatik?

Iruditzen baitzaigu gaur egun munduan dauden proposamen feministak iraunkorrak izango direla baldin eta lurra ere hartzen badute bizitzarako ezinbesteko espazio modura. Zapalkuntzen eraikuntza epistemiko oso bat egiten badugu, gorputzen zapalkuntzari eta askapenari buruz, baina ez badugu hori lotzen lurrraren askapenarekin, espazio horretan bizi baitira gorputzak, korrante feminista orok hutsune handia izango du. Bizitzarako konpromiso bezala ikusten dugu. Gainera, sistema patriarkalak aspalditik menderatu du natura, ez soilik giza gorputzak.

Meatzaritza interesen aurka egin duzue, ezta?

Egiatan, mendiko borroka ez zen xuxen meatzaritzagatik abiatu baizik eta petrolioaren eratzeko interesak zeudelako. 2007 inguruan zurrumurruak zabaldu ziren, atzeritar asko zebilela komunitateen inguruetan. Xalapango lurrak ezin dira saldu, jabegoz komunalak baitira. Hala ere, susmatzen hasi ginen, eta urte

A portrait of Lorena Cabnal, a woman with dark hair tied in a bun, wearing a vibrant, multi-colored striped shawl over a red turtleneck. She is looking directly at the camera with a calm expression. In the background, a floor lamp with a white shade is visible, casting a warm light. A semi-transparent text box is overlaid on the bottom left of the image.

Lorena Cabnal

Maia-xinka herria,
Guatemala

Aktibista eta feminista
komunitarioa da.
Santa María Xalapango
Emakume Indigenen
Elkartea sortu
zuen: meatzaritza
multinazionalak eta
emakume indigenen
aurkako zapalkuntza
patriarkala borrokatzen
dituzte.

horretan bertan komunikatua argitaratu genuen, atzerritarren petrolio interesak salatuz.

Eta gero?

Herri-kontsulten berri izan genuen. Guatemalako mendebaldean hasi ziren kontsultak egiten, ez funtzionario publikoei interesatzen zitzaielako herritarrei galdetzea, jakina, baizik eta herritarrek konturatu zirelako gobernuak lursail asko emanak zituela, beraien baime-nik gabe. Eredu horri heldu eta 2009an antolatzen hasi ginen, lur-emakideei buruzko txostenak eskatzen alkateei, diputatuei...

Historia oso luzea da, baina, laburbiltzearen: sekulako lan politikoa egin genuen, ez ziguten informazioa eman nahi eta orduan mobilizatzen hasi ginen. 20.000 sinaduratik gora bildu genuen, orotariko meatzaritzari uko egiten geniola aldarrikatuz. Ez dugu meatzaritza onartuko, hitzik politenekin saltzen badigute ere (garapena eta beste). Jatorrizko herrion arabera, garapena ez da bizitzaren sarean sartzen, izan ere, garapenak, eredu patriarkal neoliberalaren barruan, aberastasuna sortzen baitu batzuentzat eta pobrezia bestetzuentzat, eta ondasun naturalak suntsitzen baititu.

Zertan datza ondo bizitzaren kontzeptua?

Hasteko, ondo bizitzeko modu bat baino, ondo bizitzeko moduak daude, herrion kosmogoniako printzipioetako bat aniztasuna baita. Jatorrizko herriok airtortzen dugu bizitzeko hainbat modu dagoela.

Mundua zibilizazio-krisi global batean murgildu zen eta orduantxe hasi ziren mendebaldekoak guri begira: nola arraio biziraun du jende honek? Eta ondo bizitzeaz hitz egiten hasi ziren, baina ez dago modu estandarizaturik. Herri bakoitzak badu berea, bere hizkuntzan izendatzen du.

Nola interpretatzen duzue zuek?

Gure kasuan, feminista komunitarioak izaki, ondo bizitzaren barruan jatorrizko herrien elementu batzuk berreskuratu nahi ditugu, bizitzaren sareari ekarpena egiten diotenak, adibidez, arbasoen memoria, denbora neurtzeko modua, ahozketasuna... Baina badaude esentzialismo indigenak ere eta horiek



“Itsasontziek ekarri zutena –besteak beste, erlijioa, ezkontza, birjintasunaren kontzeptua– hemengo egitura patriarkalekin uztartu zen, eta horregatik gaude hain izorratuta gaur egun”

ez zaizkigu interesatzen. Adibidez, indigenen komunitateetan emakumeen aurkako bortizkeria sexual izugarria gertatzen da. Nolatan izango da hori ondo bizitzea? Badaude eraikitako hegemoniak ere, adibidez, gure komunitateak heterosexualak dira guztiz. Horrek bizitzaren sarea hausten du, guk aniztasunean sinesten dugu. Ondo bizitzeak ez badu aintzat hartzen gorputzen aniztasuna... susmagarria deritzot.

Zaila izan behar du traizioari aurre egiteak.

Espazio indigena askotan esan digute jada ez dugula emakume indigenen

eran pentsatzen eta hori gertatu dela kanpotar eta feminista askorekin ibili garelako: adibidez, indigenok ez ditugu emakumeak eta gizonak bereizten, gure erreferentzia “herria” izan da beti. Gure iritziz oso interesgarria da herriaz mintzatzea, eta ikustea nola ezkutatu den, kategoria horren barruan, emakumeen gorputzen azpiraketa. Zeren eta, antolatutako komunitate indigenetan, nolatan dira beti nagusi gizonen hitzak eta ekin-tzak, emakumeenen kaltetan? Nolatan dira gida espiritual gehien-gehienak gizonak? Emakumeok ez al dugu autonomia espiritualik?

Oso prozesu konplexua izan da, eta bada oraindik ere. Noski, prozesu guztiek bezala, doluak, galera eta gatazkak dakartza. Feminista komunitarioon egoera zaila da, estigmatizatu eta jazarri egiten gaituzte.

Batzuen arabera, beraz, kolonialistekin batera iritsi zen patriarkatua ere.

Bai, badirudi batzuek orain dela 524 urteko egoerara joan nahi dutela eta esan orduantxe hasi zirela jatorrizko herrien gaitz guztiak, eta horren aurretik oro zela bakea eta maitasuna. Ba ez. Ez, eta kategorikoki diot ezetz. Jakina, ez diot ardura izpirik kentzen koloniari, historikoki, misoginoa eta bortitza izan baita gorputzen eta lurraren aurka. Baina niretzat oso gogorra da nire burua orain 524 urte kokatzea.

Hori guztia esan dezaket emakume indigena naizelako eta, hortaz, autoritate epistemikoa daukadalako nire mundu indigena zalantzan jartzeko. Neu, emakume indigena izaki, ahozkotasanaren bidez, nire gorputzean jasan ditudan zapalkuntzen bitartez, hurbil naiteke kolonizazioaren aurreko lurralde esanahidunera, eta senti dezaket nola eratzten ziren orduan gizarte indigenak. Ordurako, gudak zeuden herrien artean, handiak, eta niretzat gudok jada sexualki bereizita zeuden, gizonak gudariak baitziren, baina emakumeak... Non zeuden emakumeak?

Zuen ustez, “uztartze patriarkala” gertatu zen.

Kolonizazioaren hastapenetako dokumentu asko daude, gizon indigenek idatziak, eta horiek irakurri ostean proposatu genuen uztartzearen teoria. Agirietan kontatzen da nola, gizon indigena askok, mandatariek-eta,



Donostiako Kaxilda liburu-dendan tailerra eman zuen Cabnalek Bilgune Feministaren eskutik. Elkarrizketan ez bezala, orduan gustuko duen arropa tradizionala jantzita aritu zen.

emakumeak eman zizkieten, masiboki, kolonoei. Zergatik? Emakume horiek bortizkeria sexuala jasan zuten eta horren oinarrian egitura patriarkal bat zegoen, testuinguru zehatz batean. Zeinek erasotzen dituen gorputzak, zeinek erabakitzen duen gorputz horien patua... egituraketa konplexua da hori.

Itsasontziek ekarri zutena –besteak beste, erlijioa, ezkontza, birjintasunaren kontzeptua– hemengo egitura patriarkalekin uztartu zen, eta horregatik gaude hain izorratuta gaur egun. Kolonialismoa lur emankor paregabea izan zen arrazakeria loratzeko, lurrak desjabetzeko, beste menderakuntza molde bat sortzeko... Eredu ekonomiko guztiz berri bat jaio zen, hori guztia oinarri.

Beste hari bati tira egingo diogu orain. Sendatzea prozesu politikoa dela aldarrikatzen duzue.

Sendatzea behar-beharrezkoa da, betiere politikoki egiten badugu, asmo feminista batekin eta laguntzen badigu gure arbasoen memoria berreskuratzen: nola osatzen ziren beraiek, inposatutako mendebaldeko sistema baliatu gabe. Aitortzen dugu sendatzeko hainbat modu dagoela.

Zergatik da hain funtsezkoa?

Non mamitzen dira zapalkuntzen zama historiko eta egiturazkoak? Bada, gor-

putzetan. Gorputz honetan bizi ditut sistema patriarkalaren somatizazio guztiak eta indarkeria psikologikoak ere txoko bat dauka nire gorputzean. Non sustraituko dira arrazakeria, misoginia, lesbofobia ez bada gorputz honetan bertan? Gorputza gudu-zelaia da sistema patriarkalarentzat, zeren eta, mingarria da esatea, baina gorputz hauekin eusten diegu zapalkuntza sistemei. Naturak ez du, berez, patriarkatua birsortzen, guk birsortzen dugu.

Beraz, sendatzea bide pertsonal, politiko eta kontzientea da, zapalkuntzak nondik datozen ikusteko eta bizitzaren zentzu politikoa aldarrikatzeko: bai, ni ondo izorratuta jaio nintzen, eta jakitun naiz gorputzean pilatuta dauzkadan menderakuntza horietaz, baina, bestalde, gorputz honetan datza askatzeko potentzia politikoa ere, eta sistema honen pean bizi naizen arren, utikan! Ez naiz hilko ez tristatuta, ez biktimizatuta; uko egiten diot, aurre egiten diot eta ezetz diot. Nire gorputza osatu ahala, energia daukat patriarkatuaren, arrazakeriaren eta kapitalismoaren aurka borrokan jarraitzeko.

Sendatze prozesuetan bidelagun izan ohi zara. Nola egiten duzue?

Naturarekin eta beste gorputz batzuekin, askatzen ari direnak, noski, ez baitzaizkigu interesatzen hegemonia eta

boterea ezarriko dizkiguten gorputzak. Erotismoaren energia ere aipatzen dugu. Patriarkatuak heterossexualtasunaren kutxatxoarekin murriztu du erotismoaren indarra, baina hor dau de natura, orotariko gorputzak, denbora-zikloak... Hala ere, kontua ez da masajeak egitea besterik gabe. Hori merkatuak harrapatu du eta ondorioz despolitizatuta dago.

Guk, batetik, maitasun-asmo bat daukagu, naturarekin eta gorputzekin maitasunez berrindartzekoa. Bestetik, elkarrekikotasunaren printzipioan sinesten dugu: sendatze prozesuetan bidelagun garenok ez gaude sendatzearen gailurrean; aitzitik, zu osatzen zarenean ni osatzen naiz, eta alderantziz.

Feministen aurkako jazarpena aipatu duzu lehen eta, amaitu aurretik, Berta Cáceresen erailketaz galdetu nahi nizuke, laguna baitzenuen.

Feminista komunitarioontzat, honez-
kero, gaur egungo borroka ezin dira
soilik politikoki, feminismoarekin eta
sozialki egin, borroka espirituala ere
egin behar dugu.



Of the record:
Argazkietan nola

Gasteiztik iritsi da Lorena Cabnal Donostiako Kaxilda liburu-dendarak, zuzenean autobus-geltokitik. Gustura geratu ei da esandakoekin, baina badu pena bat, argazkiak direla-eta: lehenago jakin izan baki, arropa tradizionalak soinean etorriko litzateke.

Bertaren tragedia gertatu da, lurralde -feminizidioa, emakumeok gure gorputzak ipini ditugulako hor, lehen leerroan, erasoan. Gauza itzela da hori eta sistematik erantzun egin du, misoginia ikaragarriarekin, gorputzen gainean daukan botererik handiena gauzatu eta mezu argia helarazi digu: emakumeei esparru pribatua dagokizue eta itzul zaitetzte bertara. Emakume potente, errebelde, ausarta eta ederra zen Berta; berari hori egin badiote, pertsona publikoa izanda, zer ez ote digute guri egingo, mendietan? Mezu hori bidali digute.

Sendatzeko modu bat izan da Honduraren biltzea, Bertari agur esateko?

Bai. Funtsezkoa zaigu, biktimizazioan ez erortzeko, eta lanean jarraitzeko. Honduraren bildu gara, mehatxupean eta estigmatizatuta gauden emakumeak, Epaitegi Iberoamerikarrean salaketak dituztenak, arriskuan gaudelako nazioarteko babesa jasotzen dugunok... Han bildu gara eta kapitalismoaren eta patriarkatuaren heriotza mezuari zera erantzun diogu: zenbat eta zapalkuntza handiagoa, orduan eta antolakuntza sendoagoa. ■

**Maiatzaren 11n emango dira
CAF-Elhuyar sariak.**

Ekitaldia Donostiako
Tabakaleran izango da,
Kutxa Kultur gunean, 18:00etan.

Gonbidatuta zaude!

Jarri txertoa
kultura zientifikoaren alde

CAF
ELHUYAR
SARIAK 2015

ANTOLATZARLEAK

LAGUNTZAILEAK

CAF elhuyar
ezagutur aldatzea

Donostia Euzko Unibertsitatea
Donostia Euzko Unibertsitatea
Donostia Euzko Unibertsitatea

Caja de Pensiones para la Vejez

Kutxa kultur
gunea

Panama

Azken aste hauetan asaldatuta gabiltza Panaman azaldu diren 11,5 milioi dokumentu filtratu dituelako kazetarien kontsortzio batek. Dokumentu horietan azaltzen diren izen ospetsu batzuk bakarrik eman dizkigute, baina jakin behar dugu munduko populazioaren %1ek munduan zehar barreiatuta dauden paradisu fiskaletan dokumentuak gordeta dauzkala, eta oraingoan bakarrik, Panama atera dela.

Urrutira joan gabe hor daukagu Andorra, Gibraltar edo Britainia Handiko hainbat irla txiki. Alabaina, harrigarria da Europar Batasunaren bihotzean dagoen Luxenburgo, ahaztu gabe Herbehereak edo gure artean dauden paradisu fiskal sektorialak. Adierazgarria da agintariekin eta horien aurpegi garbitzaileek, hots, komunikabideek azaldu dituzten jarrerak, hipokresiaren aurpegiak azaldu baitituzte.

Zer espero dezakegu Europako Batzordeburuaren aldetik, bera Luxenburogo lehen ministroa zenean Luxenburogora hirurehun bat enpresa multinazional erakarri baitzituen? Horien artean Google erraldoia, beronen mozkinak hutsaren pare ordain zezaten. Zer idatziko dute Espainiako Estatuko egunkari eta telebista handiek Banco de Santanderren edo BBVAren maileguen menpe baldin badaude, nahiz jakin diru-etxe horiek aritzen direla hemendik beretik dirua paradisu fiskaletara bideratzen?

Antza, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) jazarriko omen dituzte paradisu fiskalak. Baina nork sinetsiko die erakunde horiei beraien agintariak estatu kideen gobernuek izendatzen badituzte. Aipatzekoak dira Rato edo Strauss-Khanen kasuak, biak NDFko zuzendari ohiak, Panamako zerrendan azaldu direlako;



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Zinismoa: iruzurra egin dutenak espetxetik kanpo eta salatzaileak zigortuta. Hor daude Falciani, Assange eta abar, espetxe bidean edo prozesatuak izateko arriskuan. Zergak ordaintzen ez dituztenak kalean lasai, egoera hori salatzen dutenak jazarrita. Horrela nola amaituko da paradisu fiskalekin?

Felipe Gonzalez ere ez dabil oso urrun zerrenda horretatik.

Jakin dugu ere Argentinako lehen-dakaria, Macri jauna, eta Britainia Handiko Cameron jauna, besteak beste,

nahasita dabiltzala paradisu fiskaletan. Besterik ezin dezakegu espero Saudi Arabiako Salmon erregeaz edo Ukrainako lehendakariak edo Errusiakoak. Baina ezer gutxi dakigu Alemania edo Herbehereetako agintariekin; edo AEBetakoek, horiek ez daukatelako beraien ondareak kanpora eraman beharrik, paradisu fiskalak bertan baitituzte: Delaware, Nevada, Wyoming...

Zinismoa: iruzurra egin dutenak espetxetik kanpo eta salatzaileak zigortuta. Hor daude Falciani, Assange, eta abar, espetxe bidean edo prozesatuak izateko arriskuan. Zergak ordaintzen ez dituztenak kalean lasai, egoera hori salatzen dutenak jazarrita. Horrela nola amaituko da paradisu fiskalekin?

Pertsonaia horiek guztiek, neoliberalismoaren doktrina erabiliz, gastu sozialen murrizketak egin beharrekoak direla esaten digute, egun batean bai eta bestean ere bai, eta bien bitartean kutxa publikoetara egin behar lituzketen ekarpenak saihesteko paradisu fiskaletara eramaten dituzte beren dirutzak, sarrera publikoak erabat murrizturik utzita. Gainera, pertsonaia horiek fundazio ospetsuak sortzen dituzte beraien negozioetako etekinekin, normalean, karitate ekintzetan erabiltze aldera. Zalantzarik gabe, estatuak modu demokratikoagoan erabiliko lituzke diru horiek, eta ez Afrikako herrialdeetan transgenikoak sustatzen, Bill Gates eta enparauek egiten duten bezala.

Globalizazioak mundua herrixka bilakatu zuela zioten. Eta jakina, herrixka batean edonor eta edozer alde batetik bestera mugi daiteke. Dirua bai, zuntz optikotik alde batera eta bestera eraman dezakete, batik bat paradisu fiskaletara, baina ez pertsonak. Pertsonak ez daukagu mugitzeko eskubiderik, preso egon behar dugu gure herrialdeetan. Bestela galdetu Grezian dauden siriar, irakiar edo afganjarrei. ■

Filosofia, arbuiaitu?

Gizakia munduratu izan da. Munduratze horretan, kale gorrian, zerua goian eta lurra behean, gizakiok hori baino ez dugu aurkitzen. Ezereza da geratzen zaigun bakarra? Etsipena? Ezdeus horretatik irteteko, gizakiak berezkoa du indarra. Aristotelesen *Metafisikaren* lehenengo liburuan esaten zuen bezala: “Gizaki guztiek izatez dute jakiteko guraria”.

Horrelako baieztapenek indartu egiten dute ideia hau: gizakiak, ares-tian aipatu dugun etsipen horretatik irteteko, badu nahiko aitzakia. Gizakiak, harridurak bultzatuta, bere ingurunea ikertzeari, atzemateari, ekin zion. Gizakiak, gizaki den ez geroztik, aurrean daukan hori, *physisa*, ulertu nahi du. Eta berriro ere ekar ditzagun Aristotelesen hitzak, *Filosofoarenak*: “Gizakiak, orain eta hasieran, lilurarengatik hasi baitziren filosofatzen: hasiera batean, gauza arruntek sortzen duten harriduraren aurrean liluraturik; ondoren, pixkanaka-pixkanaka aurrera egin ahala, gauza konplexuagoen aurrean zalantzan egonik, esaterako, ilargiaren, eguzkiaren eta izarren eta unibertsoaren genesiaren fenomenoaren aurrean”.


Beraz, lilura dago gizakiaren baitan. Lilurak bultzatuta saiatzen gara gure

Hezkuntzan bizitzen ari garena horren isla da. LOMCE legearen baitan, Filosofia irakasgaia geletatik desagerrarazi dute



Juan Ramon Makuso

IRAKASLEA ETA IDAZLEA



Antton Olariaga

galderei erantzuten. Horren adierazle nagusi bat haurraren jarrera da. Errealitatearen aurrean, galderak egiten ditu. Berezkota du, haurrak, galderaren ariketa. Dialektika sortzen da, beraz, gizakia eta aurrean daukan horrekin. Kezkak sortze bat ekartzen du. Sortzearen ondorioetako bat balio berriak eraikitzea da. Nietzschek, *Honela mintzatzen Zaratustra* liburuan, haurraren espiritua eraikitzen du, balio berrien eraikitzaile bezala. Moral tradizionala deuseztatu, eta balio berriak sortu. Jolasetik, askatasunetik. Gizakiak sortzen du, inongo baliagarritasunari begiratu gabe. Eta berriro Aristotelesen hitzak: “Baina zalantzan eta liluraturik dagoenak onartzen du ez dakiela (...). Beraz, ez-jakitetik ihes egiteagatik filosofatu bazuten, agerian dago jakiteagatik eta ez inongo baliagarritasunarengatik ekin ziotela ezagutzeari. Eta horren lekuko da gertatutakoa: beharrezko gauza gehientsuak eta dibertsioaren eta bizitzaren atseginerako ezagutzak lortuak zirenean ekin baitzitzaion halako diziplina bat bilatzeari. Argi dago, bada, hau ez dugula beste inolako baliagarritasunarengatik bilatzen”.

Horren ondorioa begi-bistan dago: filosofiak ez du baliagarritasunik. Eta horrek gaur egungo gizartearen zutabe nagusi batekin talka egiten du, denari bere baliagarritasuna bilatzen baitzaio, baita gizakiarengan, zoritxarrez. Hezkuntzan bizitzen ari garena horren isla da. LOMCE legearen baitan, Filosofia irakasgaia geletatik desagerrarazi dute. Aristotelesen hitzetatik, ez da ezer ulertu, eta gaizki ulertze horretatik, Filosofia baztertu egin dute agintariak, eta hein batean, baita gizakiak ere. Eta hori da larriena. Gizakiak, Filosofia bere bizitzatik baztertzeko duenean, uko egiten dio bere izaerari. Filosofiarik gabeko bizitza, ez da bizitza, beste zerbaite da. ■

Opari pozoiduna



Oier Araolaza
DANTZARIA
@oaraolaza

Orain urtebete ongietorria eman nion orriotan Dantzertiri, antzerkia eta dantza ikas- teko Eusko Jaurlaritzak Bilbon ezarritako eskolari. Irailean ireki zituen ateak eskolak, lehen ikasturtea osatzen ari da eta arte eszenikoen alorrerako albiste ona da hori. Baina nire ongietorrian aurreikusten nituen gabeziak oraindik larriago ageri zaizkigu urtebete beranduago.

Eskola ezartzeko hautatutako egoitza, Arriaga Kontserbatorioa, ez da egokia. Irakasleek eta lehen ikasturteko ikasleek eman dezakete horren berri. Dantza irakasteko gelak txikiegiak dira, musika irakasteko pentsatuak baitira, eta ez dago azaldu beharrik, espazioari dagokionez musikaren eta dantzaren premiak desberdinak dira. Bestalde, eskolak ez du antzokirik. Antzerki eta dantza eskola bat antzokirik gabe? Ba halaxe da, bai. Kontserbatorioak musikara begira prestatutako entzutegia du, ez du antzokirik, eta lan-toki nagusia antzokia izango duten profesionalen hezkuntza antzokirik ez duen eraikin batean ezartzea erabaki oker eta larria da.

Euskal dantzariontzat bada kontu okerragorik baina. Dantzertin, Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Mailako Eskolan ez dago euskal dantza ikasketarik egiteko aukerarik. Hau berriz idatziko dut, hain ulergaitza eta onartezina izanik, sinesgaitza egiten baitzait, eta ea birritan irakurrita neuk ere barneratzen dudana: Dantzertin ez

dago euskal dantza ikasketarik egiteko aukerarik. Inork imajinatzen du Filologia Fakultatea Gasteizen, filologia alemana, frantsesa eta hispaniarra ikasteko aukerarekin, baina Euskal Filologiarik gabe? Ba horixe dugu dantzari dagokionez Bilbon, eta ez da orain 50 urteko kontua, 2016koa baizik.

Dantza talde, dantza eskola, hezkuntza orokorreko eskola, kultur etxe eta aisialdi guneetan, Gipuzkoan bakarrik 300 irakasle eta 10.000 ikasle inguru ari dira euskal dantzaren transmisioan. Gero eta ohikoagoa da herriz herri sortu diren Musika eta Dantza eskoletan euskal dantza irakastea. Horietan biolin, gitarra edo tronpeta irakasteko alorreko titulua behar du irakasleak. Eta euskal dantza irakasteko? Euskal dantza irakasteko ez da ez titulurik ez ikasketarik behar, edonor izan daiteke euskal dantzako irakasle.

Izan ere, Hezkuntza Sailak, euskal dantza irakasle izateko ikasketak eskaini beharrean, *habilitazioak* oparitzen ditu. Edonork egin dezake eskaera Jaurlaritzan, dantza kontuetan zer eta non ibili zaren kontatu eta kito, baduzu zigilu ofiziala euskal dantzaren irakasle izateko. Ez daukazu ezer ikasi beharrik, Hezkuntza Sailak *habilitazioa* oparitzen dizu. Azken urteotan hainbat *habilitazio* eman ditu Jaurlaritzak, eta badirudi berdin jarraitzeko asmoa duela, ez baitu asmorik euskal dantzari buruzko ikasketarik eskaintzeko. ■

Makronita



Itxaro Borda
IDAZLEA

Doi bat galduak direla nabaritzen duten jendarte guztiek gizon (bereziki gizon) probidentzialak, dirua usnatzen zaiela, espero dituzte gobernuburu edo armarik gabeko iraultzak urrezko botereraino eramateko.

Pitilina airean New Yorken erori Strauss-Kahn (DSK) zirtzilaren ondotik, orain Frantzia, Macron jauna, bankari ohia, lanaren legedia errauntsiz gehiengoarentzat, etorkizunean, esklabismoa amesten duena eta gigolo asumitua, bera baino hogeita urte zaharragoa den emaztearekin prentsa hormatuaren orrialdeak betetzen dituena, hautatuko lukete lehendakari, aburu-ikerketak aintzakotzat hartzen baldin baditugu.

Betidaniko gaixotasuna da. Seinale sozial txarra da, diruzain postuan bankaria ezartzen denean, multinazionalen desioak oro konplitzen dituen begia eta belarria bihurtzen delako. Italian, Espainian, Frantzia hala gertatu da, Europako Banku Zentraleko zuzendariaren pedigria aipatu gabe. Joera horrek katastrofeak eragin ditu historian zehar. Ez dut zerrenda egitearen beharrik.

Batzuetan uste dut hobe dela, edozein nagusiren ahotsak isuri berri ofizialak irakurtzea baino *La Riera* ikustea edo *Nit i Dia* telesailarekin zortzea, gau minean zutik.

No ploris mare... ■

Autoeraketa ere bagara

Testu hau idazteko daukadan helburua da baieztatzea autoeraketa Euskal Herriarentzat estrategikoa dela, eta hainbat ekimenen sakonenean dagoen ideia dela. Eta plano zehatzagoan, debaterako, autoeraketa prozesu bat gerta dadin zeintzuk diren beharrezko baldintzak zerrendatzea.

Hasteko, azpimarratu nahiko nuke ariketa guztiz ez-ohikoa dagoela autoeraketaren formulazioan. Zergatik? Autoeraketak, beste ideologia batzuek ez bezala, bere praktikatik bertatik zein bestelako pentsamenduetatik jasotzen dituelako irakaspenak: pentsamendu libertariorik, humanismotik, liberalismotik eta marxismotik. Parentesitxo bat: ideien mestizaiaren praktika horrek gaurkotasuna dauka. Aurrera. Autoeraketak ez-ohiko ariketa hori egin behar izan du, besteak beste, pertsonaren garapena eta bokazio kolektiboa konbinatu nahi dituelako. Batzuetan interes kontrajarriak. Horiez gain, autoeraketak lankidetzan aurkitu du kontzeptu osagarri egokiena, planteamendurik koherenteena. Beraz, bi zutabe nagusi: autoeraketa eta lankidetzak.

Gurera etorrita, Euskal Herria lurralde ikaragarri aberatsa da autoeraketa esperientziatan: kultur arloan, ekonomian, euskalgintzan, hezkuntzan,



Andoni Mujika

IRAKASLEA

@mujikaandoni

Herrigintza eta eraldaketa espresio guztien oinarri eta logikan autoeraketa dago. Gainera, autoeraketa esperientziek norabide zabal bezain estrategikoa konpartitu dezakete

komunikabideetan edota mugimendu sozio-politikoan. Autoeraketa, lankidetzak eta ekintzailetasuna herri honen identitate elementuak direla uste dut, eta horren kontzientzia izatea etorkizuneko giltzetako bat dela sinetsirik nago. Herrigintza eta eraldaketa espresio

guztien oinarri eta logikan autoeraketa dago. Gainera, autoeraketa esperientziek norabide zabal bezain estrategikoa konpartitu dezakete.

“Autoeraketa lankidetzan” ideia indartsua da arrazoi askorengatik. Batzuk aipatzearen, pertsona subjektu eta gizartea komunitate bihurtzen dituelako. Edo gure burua menpekotasunetatik askatzen duelako. Horrez gain, inori itxaron gabe egitasmoa errealtate bihurtzen has daitekeelako. Bestetik, pertsonaren benetako gogoekin lotzen duelako. Edota subjektu eta komunitate auto-eratuagoak marrazten dituelako.

Hausnarketa hau bukatzeko esperientzia auto-eratu bat gertatzeko beharrezkotzat ditudan zazpi osagai zerrendatuko ditut, gogoetan aurrera egiteko borondatearekin. Bat: pertsona prozesuaren erdigunean jartzea. Bi: ingurua eraldatzeko pertsona eraldatzea. Hiru: ideia on eta erakargarri bat edukitzea. Lau: lider egokia izatea, katalizatzailea, sortzailea, konstantea, bisioduna eta pertsonen zerbitzura dagoena. Bost: ekintzarako gogoia. Sei: talde sustatzailea. Zazpi: bideragarritasun integrala eta errealtate zentzua.

Gainontzeko gakoak, prozesu guztiak dinamikoak direnez, ibiliaz argituko dira. Oinez hasi behar horretarako. ■



Liburu azoka

Santurtzin, maiatzaren 6tik 15era Parke Zentralean

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Ekainaren 28an, 29an eta 30ean LEIOAN

Uztailaren 4an, 5ean eta 6an DONOSTIAN



Adimen anitzak eta autoestimua - Irakaslearen komunikatzeko estiloa -
 Pedagogia Sistemikoa ikasgelan - Eskola libre eta demokratikoak - Laguntza
 inklusiboa eskoletan - Mindfulness (arreta osoa) eta... - Heziberri 2020
 programan Zientziarako konpetentzia - Entrenamendu Mentala - Konpetentzien
 ebaluazioa BHn - Haurren autoestimua - Nola saihestu gatazkak -
 Psikomotrizitate praktika - Gorputzetik hezi eta bizi - Dalcroze erritmika -
 Nerabeekiko lana irakaskuntzan - Dramatizazioa eta Antzerkia hezkuntzan -
 Motibatu nahi? - Ipuinak kontatzen irudi-liburuak lagun - Plastika - Haurrentzako
 masajea - Espresio tailerra - Artea - Yoga eta Kontzentrazio Teknikak eskolan -
 Musika Haur Hezkuntzan - Otsoaren ahoan barrena! - Koplagintza Haur
 Hezkuntzan - Gure imaginarioa kantagintzaren bidez - Euskal mitologia.

Informazioa eta izena ematea **www.hikhasi.eus** helbidean

JURRAMENDI 1976

...eta hiltzen jarraitu zuten

Karlisten arteko liskar moduan saldu nahi izan zutena, egiaz estatu aparatuetatik antolatutako gerra zikina izan zen. 1976ko maiatzaren 9an Jurramendiko erasoan parte hartu zuten mertzenarioen lorratzari segitu diogu, Frankismoan bezala, Demokraziaren estoldetan ere aritu baitziren.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Josu Chueca

“Oraingoan denok dakigu nortzuk tiro egin, zauritu eta erail duten Jurramendin. Nafarroak ikusi berri du nola ezarri den terrorearen legea, suzko armekin, defentsarik eta babesik gabeko herri-tarren kontra”. Horrela ekin zion *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkariak Jurramendiko gertakariei buruzko editorialari; “Inpunitatea” hitza letra larriz zekarren zenbaki hartako azalak. Berrogei urte betetzear ditugula, zigorgabetasunak jarraitu ez ezik luzaro iraun du, eta gerra zikina estatu terrorismoaren kate-maila latza izan da Euskal Herrian zein Espainian.

Erregimenaren komunikabideek – RTVEk batez ere– eta bozeramaileek –Manuel Fraga gobernazio ministrotik

hasi eta José Ruiz de Gordo Nafarroako gobernadore zibileraino– karlisten arteko borroka moduan aurkeztu zutena, askoz gehiago izan zen, eta horrela salatu zuten Jurramendikoa jorratu zuten txosten eta aldizkarietan: ez zen karlismo atzerakoi eta aurrerakoiaren arteko liskarra izan, Estatuko zerbitzu berezien operazio zikina baizik. Sozialismo autogestionarioaren eta demokraten bidea hartu zuen karlismoaren adar nagusia makurrarazi nahi zen modu horretan.

Horrela bakarrik ulertu daitezke Iratxe monasterioaren aurrean eta Jurramendiko tontorrean izandako hilketak, baita aurreko egunetan hedabide eskuindarrek, Gobernu Zibilararen eta Barne Ministerioaren estoldetako la-



guntzarekin sustaturiko “Birkonkista” ekimena ere. Gertaerak ezin izan zituzten ezkutatu ordea, ehunka lekuko zeudelako eta oihartzun grafikoa oso agerikoa izan zelako erreportaje honetarako berreskuratu ditugun argazkien bidez.

Gertaerak: lehen eskuko kronika bat

1976ko maiatzeko igande hartan, Iratxen ohiko bidegurutze karlista abiatzear zegoenean, ultraeskuindar, legionario eta faxista argentinar, italiar zein frantziarrez osaturiko tropela hurbildu zen monasterioaren zelaigunera. Pistolak eta borrak eskutan, kosta ahala kosta Jurramendiko bidegurutzea birkonkistatzera omen zihoazen. Hasieratik argi gelditu zen karlisten autodefentsa hu-



Jose Luis Marín García Verde komandante ohia "Gabardinadun gizona" izenez egin zen ezagun argazki hauengatik. Berak jo zion tiroa sabelean Aniano Jimenez Santos santandertarrari. Hilabete gutxi egin zituen koartel militar bateko ziegan eta epaitu gabe askatu zuten 1977ko Amnistiarekin.

tsalaren aurrean ez zutela inongo erreparorik hiltzeko eta erantzunik apalena ere tiroz eta odolez amatatuko zutela.

Jose Luis Marín García Verde komandante ohia, txapela gorri izardunaz eta gabardinaz jantzitako pistoladunak, lehen liskarretan esku hutsik zihoan Santanderreko HOAC-eko Aniano Jiménez Santosi tiro hilgarria eman zion sabelean. *Gabardinadun gizona* izenez ospea hartu zuen hiltzaileak minutu dezente jarraitu zuen, harro bezain probokatzaile, pistola eskuan egoera hura sinetsi ezinik zeuden karlistei mehatxu eginez, baita oso gertutik eraso pasibotasunez ikusi zuten guardia zibilen aurrean ere.

Militarrak lasai erakutsi zezakeen pistola, inguruan egundoko kohorte faxis-

ta baitzuen. Alboan haren lehengusu Hermenegildo García Lorente, Carlos Ferrando Sales eta Fal Macías, Manuel Fal Conde karlisten buru izandakoaren semea zituen. Pixka bat atzerago mundu osoko faxisten sorta: Emilio Berra *El Chacal* argentinarra, Stefano Delle Chiaie eta Augustu Cauchi italiarrak, eta Jean Pierre Cherid aljeriarra. Gehienak borraz eta pistolaz armaturik zeuden, azkenekook García Marinek eta Berrak soilik atera bazituzten ere.


Nahasmena handia zen arren, ultraeskuindarren eraso amaiturik zegoelakoan, karlistak Jurramendirantz abiatu ziren. Carlos Hugo Borboi-Parma erregegaiaren partaideek betiko bide-tik manifestazio ikusgarria egin zuten

bitartean, dirudien faxistak Iratxe urbanizazioaren atzeko aldetik igo ziren gailurrera jeepez.

Jurramendiko maldan, berriz, ehunka polizia nazional zegoen ilaran jarrita erne, bai baitzekiten zer zen geroago jazoko zena. Hura ez zen haien berezko interbentzio esparrua, eta horrek Gobernu Zibilaren parte-hartze zuzena salatzen zuen. Baina polizi horiek ere alferrikakoak izan ziren karlisten aurkako bigarren erasoaldia saihesteko.

Lehen manifestariak Jurramendiko gailurrera iritsi orduko, berriz eraso zizuten pistolen eta metrailadoreen tira jasekin. Hiruzpalau zauritu izan ziren laino artean, tontorretik 200 metro eskasera. Jose Javier Nolasco oinean jaso zuen

NOR DA NOR? MERTZENARIOEI AURPEGIA JARRIZ



Jimmy Rodriguez

Ultraeskuindarra, Jurramendiko erasoen lehen lerroan ibili zen.

Augusto Cauchi

Italiako mugimendu ultraeskuindarretan ezaguna, *caccolesia* zen, *El Caccola*-ren jarraitzailea.

Stefano delle Chiaie, Caccola

Italiako Avanguardia Nazionalearen sortzailea, Espainiako SECED inteligentzia zerbitzuetan aritu zen eta 1975etik Iparraldean atentatuak antolatu zituen BVE eta ATE hizkiekin.



Jean Pierre Cherid

Aljeriako talde armatuetan ibilia, 1978an *Argalaren* kontra atentatu izana leporatu zioten. 1983tik GAlen aritu zen; 1984an lehergailu batek eskuetan eztanda eginda hil zen.

Emilio Berra, El Chacal

Argentinako Alianza Apostólica Anticomunistako (AAA) kidea.

tiroa eta Ricardo García Pellejero, 20 urtetako Lizarrako gazteak bularrean. Azken hau tapaki baten gainean, txandaka eta korrika jaitsi zuten mendian behera, baina Gurutze Gorriak bidalitako anbulantziara iritsi zenerako hilik zegoen.

Ordurako Carlos Hugoren alderdikoek erabaki zuten ibilaldia bertan behera uztea eta buruzagiak ere alde egin zuen. Hurrengo egunetan eman beharreko erantzun politikoa prestatzen hasi ziren beste indarrekin batera.

Hilketak izan ostean, José Arturo Márquez de Prado eta Sixto Borboi-Parma erasotzaileen buruak Iratxera jaitsi ziren tontorretik. Bidean ez zuten poliziaren errepide-kontrolik edo oztoporik eduki. Aurreko asteartetik luxuzko aterpe izan zuten Iratxe hoteletik haien atorrak jaso eta Madril, Andaluzia eta Extremaduran sakabanatu ziren. Denetan ezagunenak, Sixto Borboi-Parma erregegai erreakzionarioak, arazorik gabe egin zuen ospa Espainiatik.

Hurrengo egunetan, lehen erasoaren argazkiak zabaltzen hasi zirenean eta herioan zegoen Aniano Jimenez ere hil zenean, hainbat atxiloteta egin behar izan zituen Arias Navarroren gobernuak. Hedabide askotan azaldutako *Gabardinadun gizona* Huelvan zegoen atxilotu zutenean, eta Lizarrako epailearen aurrera eraman zuten. Gauza bera egin zuten José Arturo Márquez de Pradorekin, Extremadurako lurjabe handia. Haiek izan ziren atxilotu eta giltzapetu zituzten bakarrak; zenbait hilabete geroago, 1977ko Amnistia-legearekin, libre geratu ziren epaituak izan gabe.

Cherid eta Delle Chiaie: zerbitzu sekretuen bi lagun

Erasoan parte hartu zuten mertzenario eta faxistek –sarritan izen-abizenez oso ezagunak– ez zuten zigorrik jaso. Haien artean zeuden karlismoarekin zerikusi gutxi zuten erakunde faxistetako aktibistak: Argentinako Alianza Apostólica

Anticomunistako Emilio Berra; Italiako Avanguardia Nazionaleko Giuseppe Calzona, Augusto Cauchi eta Stefano Delle Chiaie; eta Organisation de l'Armée Secrète (OAS) aritutako Jean Pierre Cherid frantziar-aljeriarra.

Horiek guztiek abagune desberdinetan bidaiatu zuten Espainiako Estatura, eta bertako ministerioen babes aurreratu zuten, batez ere Gobernazioan eta Presidentziako inteligentzia zerbitzuetan, SECED delakoan. Zeren truke? 1975-1984 urteetako gerra zikinean aritzearen truke. Jurramendin ibili zirenen artean bi nabarmenak dira: Stefano delle Chiaie eta Jean Pierre Cherid.

Lehena, Italiako Caserta jaioa, *Caccola* (Mordoxkotxo) izengoitiarekin ezagun egin zen eta Movimento Sozial Italiano (MSI) elkarte ultraeskuindarrean hasi zuen bere ibilbide politiko-militarra. Gero Ordine Nuovo erakunde faxistatik igaro zen, eta azkenik Avanguardia Nazionale erakunde sortu zuen. Bi



Karlismoaren adar nagusiak ideia aurrerakoak bereganatu zituen Carlos Hugo Borboi-Parma buru zuela eta Jurramendiko igoera tradizionala manifestazio antifrankista baterakoi bihurtu zen 70eko hamarkadan. Goiko irudian, ikurrinak eskuetan; erdikoan, ehunka polizia nazional guardian, erasoa gertatuko zela jakitun baina ezer egin gabe; behean, Fernando Lucas Iratxeko monasterio parean kolpe baten ondorioz buruan zauritua.

urtxintxaz blai
mundua koloretan

egin zaitez urtxintxakide
www.urtxintaeskola.eus

f Urtxinta Eskola @urtxintaeskola

BIZENTAREN LUMAK
elhuyar da

Zelai Haundi, 3
Osinalde Industrialdea
Usurbil (Gipuzkoa)
☎ 943 363 040
www.elhuyar.eus

bf
euskal herriko bilgune feminista

Martin Ugalde Kultur Parkea
Andoain (Gipuzkoa)
☎ 943 59 09 02
www.bilgunefeminista.eus

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

HIZKUNTZA ZERBITZUAK KULTURA ZERBITZUAK ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO ZERBITZUAK PARTE HARTZE ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO
www.emun.eus

helburu izan zituen Italian jardun zuen bitartean: ezker muturreko taldeetan – bereziki anarkistetan– infiltratzea atentatuak egin eta probokazioak sorrarazteko, eta zuzenean talde eta militante ezkertiarak erasotzea.

Italian izandako hilketa batzuen eta Valerio Borghesek 1971n egindako estatutu kolpearen porrotaren ondorioz, Espainian aterpetu zen eta aitzindari izan zen beste faxista italiar asko birkokatze-ko. Bizilekua eta lan zikina eman zieten Carrero Blancoren aginduz sortutako SECEDen, adibidez. 1975etik aurrera Ipar Euskal Herrian BVE eta ATE siglekin izandako gerra zikina haien eskutan egon zen. Jurramendin, Stefano delle Chiaierekin batera beste *caccolesi* –*Caccolaren* partaideak– batzuk zeuden: Augusto Cauchi, Giuseppe Calzona eta Mario Ricci, argazkitan ikus daitekeenez, eta Ricardo Arques eta Melchor Miralles kazetariak bere garaian egindako ikerketan batean azaltzen den moduan.

Jarraitzaile gutxiago zituen Jurramendin Jean Pierre Cheridek, baino bide askoz luzeago egin zuen Estatuaren gerra zikinean barrena. Paddy Woodworth idazleak Espainiako Estatuak kontratatuturikoen artean aitzindaritzat du hiltzaile aljeriarra: “Eskuin-muturreko mertzenarioen paradigma” gisa deskribatu du. Aljeriako gerran paraxutisten sarjentu izan ostean, Organisation Armée Secrete (OAS) talde armatu ultrasokuindarrean ibili zen. Hogeita hamar urteko kartzela zigorra saihestearren joan zen Espainiara 1964an eta Madrilen zela Delle Chiaierekin egin zuen bat: hala xe hasi zen SECEDe legez kanpo egin behar zituen ekintzetan parte hartzen.

Jurramendin erasotzaileen lehen lefroan jarri zen Cherid, Augusto Cauchi, Emilio Berra, Fal Macías eta *Gabardina-dun gizonarekin* batera. Dena den, askoz gehiago nabarmendu zen 1978az geroztik berpiztutako gerra zikinean. Berari leporatu diote urte horretako abenduaren 21ean José Miguel Beñaran *Argala*-ren kontra atentatu izana. 1983tik aurrera GAlen ekintzak hasi zirenean ere buru-belarri aritu zen. Carrero Blanco eta Suarezren UCDren garaietatik zetozen mertzenarioak sigla berri horien pean hasi ziren egiten polizia espainolak mugaz bestaldean egin ez zitzakeen lan zikinak. Alderdi sozialista agintean zegoela mugaz bi aldeetan terrorrea zabaltu zutenean, Jean Pierre Cherid zen

ARGAZKIEN EGILEA



Josu Chuecak duela 40 urteko maiatzaren 9 hartan nekez jakingo zuen eskuetan zuen reflex kamerarekin altxor grafiko bat sortuko zuenik, Jurramendiko ekitaldia puntako egunkarietako foto-erreportariak ari baitziren jarraitzen, *El País* sortu berrikoak esaterako. *Cuadernos para el diálogo* aldizkariako irudi honetan ikus daitekeen bezala,

Chueca erasotzaileengandik metro gutxitara aritu zen kamerari klik egin eta egin, haietako batek pistolarekin seinatzeraino.

Erasoa gertatu eta egun batzuetara jabetu zen berak ateratako argazkien baliorez. *Punto y Hora de Euskal Herria*-n argitaratu zituzten lehenik, eta beste mila agerkaritan ondoren.

» Hilketak izan ostean, erasotzaileen buruak Iratxera jaitsi ziren. Bidean ez zuten poliziaren kontrolik edo oztoporik izan

» Arias Navarroren gobernuak karlismoaren bilakaera aurrerakoia zapaldu, eta bide batez, ezarri berria zen monarkiaren aldeko desoreka sortu nahi izan zuen

gaizkile haien artean eskarmenturik handiena zuena. Baina horretan amaitu zuen bere ibilbidea: 1984ko martxoaren 19an Miarritzen errefuxiatu baten aurkako lehegailua prestatzen ari zela eztanda egin zion eskuetan eta bizia galdu zuen. Haren gorpua erabat txikituta

geratu zenez, kostata lortu zuten jendarmek jakitea Cherid paraxutista eta OASkide ohia zela.

Behin haren nortasuna argituta, GAlen arrasto eta partaide ugariren datuak atzeman zituzten. Bistan gelditu zen talde horretako buru esanguratsua zela Jurramendin ibilitakoa, eta jarraitzen zuela Espainiako agintarien menpe gerra zikinean erabat sartuta. Haren alargunak, bere aldetik, “bizitza osoko pentsioa” eskatu zion Espainiako Gobernuari, urtetan poliziarentzat lan egin zuela azalduz. Horrela, nabarmen utzi zuen Espainiako Estatuako aparatuek zorretan zeudela kriminal eta krimen horiekin guztiekin.

Jurramendin 1976ko maiatzaren 9an gertatutakoa bitxia bezain esanguratsua izan zen. Bitxia erregimen frankistaren jatorrian funtsezkoa bihurtu zen karlismoa bezalako indar politiko baten aurka eraso zutelako. Arias Navarroren gobernuak mundu osoko faxista eta indar para-polizialak erabili zituen egun hartan karlismoaren bilakaera politiko aurrerakoia zanpatzeko, eta bide batez, ezarri berria zen monarkiaren aldeko desoreka sortzeko. Eta esanguratsua, eraso hura gertatu eta berehala salatu arren, Estatuako estoldetatik sorturiko terrorismoaren zigorgabetasunak soka luze eta iraunkorra izan duelako gaurdaino. ■

PROSTITUZIOAREN BEGIRADAK

“GUZTIAK EZ GARA BIKTIMAK”

Idatzirik ez dauden arau sozial zein kulturalak hausten ditu prostituzioak. Euren gorputzen, sexualitatearen, ordutegiaren eta ekonomiaren jabe dira sexu langileak, haietako batzuk bederen. Hala kontatu digute gure solaskideek. Bizipenak anitzak izanik, badira lan honetan beren borondatez hasi eta egindako hautuaz damutzen ez direnak.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

“Lan honek ematen dit nahi dudan bezala bizitzeko aukera”, azaldu digu Samara Sampairo sexu langileak. Askatasun ekonomikoa jasotzeaz gain, bere buruari errespetua zor ziolako hasi zen lan honetan, bestela zituen bizi baldintzak ez zirelako nahi bezalakoak. Horretaz gain, gustura eta jazarpenik gabe bizi dela adierazi digu. “Brasilen onartezina eta pentsaezina zen egoera berean eroso bizi naiz orain”. Samara emakume transexuala da, Brasilen jaioa, eta etengabe hitz egin digu han bizi izan zuen jazarpenaz.

Bestelako iritzia du, baina, Laura Maso sexu langileak. Lanbide honetako zailena etiketak, marginazio soziala eta bakardadea direla aipatu digu. “Bestela ez dauka beste edozein lanbidekin baino zailtasun handiagorik”, gaineratu du.

Prostituzioa lanbide dutenak laguntzea xede duen Aukera elkarteak Sonia Vega gizarte langileak dioenez, ogibide hau ezkututzea da zailen egiten duena. Aukera 1998an sortu zen Gipuzkoan, sexu langileen jarduna itzalpetik



DANI BLANCO

atera eta gizarteratzeko. Elkarrearen helburuak dira emakume horiek osasun asistentzia bermatua izatea; babes eta aholkularitza psikologiko, juridiko eta soziala ematea; eta konfiantza-esparruak sortzea, besteren artean. “Lan honetan profesional gisa aritu arren, baldintza kaskarrak dituzte. Bizi garen sistema kapitalista honek ez ditu esku-bideak arautzen eta horrek enpresariei nahi dutena egiten uzten diete, 12 orduko lanorduak onartzeraino”; adierazi du Vegak. Gizarte Segurantzaren, estatuan zein jendartearen ez da lanbide bezala onartzen. Massok, duinki lan egiten duela aipatu digu, baina bere lanagatik kotizatu ahal izatea eskatzen du, horrek ekarriko lizkiokkeen “onura” guztiekin. “Errespetua” gaineratu du Sampairok.

Aurreiritzi eta etiketa guztien atzean zer dagoen galdetuta, gizarte langileak “kontrolaz” hitz egin digu: “Emakumeen sexualitatea kontrolatzea dago muinean. Betidanik, emakumearen praktika erotikoa senarrari eta haurrak edukitzeari begirakoa izan da eta prostituzioak ba-

rrera hori hausten du. Norekin oheratu nahi dugun erabakitzea eta gainera dirua lortzea onartezina da batzuentzat”. Sexu langileez gain zapalkuntza hau emakume guztiek jasaten dutela gaineratu du: “Jendarteak eskatzen ez duen jarrera bat izateagatik epaituak gara. Plazeragatik sexu-harremanak izateagatik, gure gorputz eta sexualitatearekin nahi duguna egiteagatik jasoko dugun lehen adjektiboa ‘puta’ izango da. Eta ez du sexu langileekin zer ikusirik”.

Bai Sampairok bai Massok, euren lana gozamen iturri ere badela kontatu digute. “Bezerearen arabera aldatzen da errealitatea. Zaila izan daiteke, nor aurreratu dugun eta buruan zer demontre darabillkion ez dakigulako, baina gozatu egiten dut”, dio lehenak. “Guztiak ez gara biktimak; telebistan-eta ikusten dugun errealitateak aurpegi ugari ditu”, gaineratu du. “Modu oso intentsioan bizi dut eta asko gustatzen zait nire lanbidea. Beti jartzen ditut nire mugak, gainera”, bigarrenak. Tartean beste hainbat onura aipatu dizkigute; autonomia, esaterako. ■

NOLA JARRI JOKOAN ADIMEN MOTA GUZTIAK

Zortzi adimen mota deskribatzen ditu Gardnerrek. Pertsona bakoitzak adimen mota batzuk ditu garatuen eta hauen bidez errazago barneratzen ditu ikasgaiak. Aldiz, eskoletan ohikoa da ikasle denentzat azalpenak ia erabat testuen eta zenbakien bidez ematea. Tolosako Hirukide ikastetxean bederatzi adimen jokoan jarri lantzen dituzte gaiak. Bertara jo dugu metodologia hau praktikatik ezagutzera eta Pello Agirrezabal zuzendariak eta Txaro Etxeberria orientatzaileak egin dizkigute gidari lanak: “Gu, egiten dugunaz bakarrik mintzo gara. Ez gara teorialariak, baina gure eskola, hori primeran ezagutzen dugu”.



Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Hiru ikastetxe batuta ekin zion bideari Hirukidek duela 13 ikasturte. Kristau Eskolen sarekoa da. Hezkuntza proiektu sendoa sortu nahi izan zuten, mende honetan izango ditugun erronkei erantzuteko baliagarria izango dena. Beraz, adimen emozionalarekin hasi ziren buru-belarri duela 12 urte: “Adimen emozionala da honen guztiaren oinarria eta gakoa. Sentimendu eta emozioen hezkuntza”, azpimarratu digu Etxeberriak. Adimen emozionala 3-12 urteko ikasleekin lantzeko programa oso bat ere sortu zuten eta 2008an Gipuzkoako

Foru Aldundiak argitaratu eta lurraldeko ikastetxe guztietara banatu zuen.

Hurrengo urratsa bizikidetza positiboa lantzea izan zen. Etxeberriak argi du: “Badakigu gatazkak beti izango ditugula. Sinesten badugu ikastetxeetan bizitzarako abileziak irakatsi behar ditugula, gatazkak era egokian, hau da, modu baketsuan eta elkarriketaren bidez konpontzen ikastea benetan da garrantzitsua”.

Hezkuntza proiektuaren hirugarren hanka, duela zazpi urte jarri zuten: ikas-kuntza kooperatiboa.



Azkenik, duela lau urte altxa zuten hiru oinarri hauen gaineko teilatua: askotariko adimenen paradigma. Horretarako, hiru oinarriak sistematizatzea gakoa dela kontatu digu Etxeberriak: “Edozein gauza martxan jartzea oso erraza da ilusio eta inplikazio pixka bat izanez gero. Baina beste kontu bat da horrek benetan funtzionatu dezala, eta ez dadila organigrama batean loreontzia izan. Oinarri hauek asko zaindu behar dira, urtero, ez hasieran bakarrik. Lan handia eskatzen dute baina bueltan jasotzen den emaitza sekulakoa da”.



Eskola benetan guztiontzako izan dadin

Agirrezabalek azaldu du zergatik egin zuten askotariko adimenen paradigma-aren alde: “Ikastetxe guztiok mintzo gara eskola inklusiboaz: eskolan denok tokia eta parte hartzeko modua izatea. Ikasle guztien presentzia eta protagonismoa lortu nahi badugu, ezin dugu jarraitu adimen logiko-matematiko eta linguistikoa soilik –edo gehienbat hori– kontuan izanik. Zeren horrela, zenbait ikasle sistema horretan baztertuta geratzen dira. Nahiz eta beraiek badituzten beste dohain ba-

tzuek, eskolan ez zaie lekuri egiten. Askotariko adimenen helburuetako bat da ikasle horien indarra ere batzea. Eta denok konturatzea indar hauek entrenatu egin daitezkeela, gainera”. Etxeberriak jarraitu du adimenen lanketaz: “Pertsona guztiak ezberdinak gara eta bakoitzak ditu jatorriz adimen batzuk garatuago, eta horrekin atera da bizitzan aurrera. Batez ere adimen linguistiko eta matematikoetan dituzten gabezia zentratzea baino askoz eraginkorragoa da identifikatzea zer adimenetan den trebeagoa ikasle bakoitza. Helburua ez da bere indargune

diren adimenak soilik garatzea, baizik, horietatik abiatuta gainerako adimenak garatzen saiatzea. Ez ditugu adimen denak neurri berean garatuko, baina bai horietako bakoitza bizitzarako behar dugun gutxieneko mailan. Eta indarguneak bai, hauek benetan garatu behar ditugu, bizitzan aurrera ateratzeko”.

Ulermen proiektuak eta beste

Nola egiten da lantzen ari diren gaia-aren bueltan adimen mota guztiak aktibatzen? Etxeberriak azaldu digunez, besteak beste ulermen proiektuak era-

biltzen dituzte: “Kontua ez da kontzeptu bat ikastea. Hori guztia jada interneten dago. Kontua, zenbait gauzez jabetzea da”. Unibertsoaren gaia jarri du adibide: “Helburua ez da zenbat planeta dauden eta zein izen duten ikastea, baizik zein diren diharduten indarrak, nola funtzionatzen duen unibertsoak. Zergatik gauden oraindik hemen zutik”. Ume bakoitza bide ezberdinetatik iritsiko da kontzeptu horiek barneratzera. “Irakasleok gaia antolatzerakoan, prestatu behar ditugu adimen ezberdinak jokoan jartzen dituzten ekintzak, ariketak... Ikasle bat gehiago iritsiko da koreografia baten bidez edo bertso bat kantatuz, beste ikasle bat eskema bat begiratzuz... Denetatik programatu behar dugu”. Batzuetan ikasle denek egingo dituzte ariketa denak, nahiz ikasle bakoitzari gehiago lagunduko dion ariketa mota batek. Beste batzutan, ikaskuntza paisaiak izeneko metodologia diseinatu dute: helburu berera iristeko bide ezberdinak marrazten ditu irakasleak, ekintza eta ariketa ezberdinen bidez, eta ikaslea joaten da aukerak egiten. Unibertsoaren adibidera itzulita, ikasleek irakurri dezakete unibertsoari buruzko testu bat (hori adimen linguistikoa litzateke), baina patiora ere jo dezakete, eta ikasle bat eguzkia izan erdian jarrita, eta besteak planetak bere inguruan bueltak emanaz (adimen kinesikoa landuz). “Horrela ulertu dezakete umeek urruren dagoen planetak denbora gehiago pasatzen duela buelta ematen. Beste batek musika bidez hobe barneratuko du...” amaitu du Etxeberriak.

Irakasleentzat, adimen bakoitzaren-tzako lanketak prestatzeko oso erabilgarri da Monserrat ikastetxeak sortutako tresna kaxa. Ez alferrik, Bartzelonako Monserrat da erreferentzia nagusietako bat askotariko adimenen lanketan. Tresna kaxan aurkituko ditu irakasleak, adimen bakoitzeko egin daitezkeen ariketa eta dinamikak. “Joera dugu adimen linguistikoa soilik testuak irakurriz lantzekoa. Baina beste aukera bat da poesia errezipitatzea, bertso bat egitea, txisteak kontatzea... Tresna kaxa oso ona da, irakasleoi baliabideak emateaz gain, burua irekitzen laguntzen digulako”.

Beheko argazkietan, Tolosako Hirukide ikastetxeko Pello Agirrezabal zuzendaria eta Txaro Etxeberria orientatzailea.



Gizartea aldatuko duten pertsonak

Agirrezabalek ikastetxearen helburua adierazi du: “Etorkizunean gizartea aldatzeko gai izango diren pertsonak sortu nahi ditugu. Horretarako, eraldatzeko entrenatuta egon behar gara”. Eraldaketa soziala lantzeko egiten dituzten hainbat ekimen azaldu dizkigu: “Adibidez, hirugarren ziklokoek detektatu zuten zer gustatuko litzaiekeen aldatzea: eskola ondoko litxarrerria denda baten ingurua erabat zikin egon ohi zen eta hori aldatzeko proiektua landu zuten. Beste ikastetxeetara ere joan behar izan zuten asmoa zabaltzera. Udalarekin harremanetan jarri ziren eta hark finantzatu zizkien pegatinak. Igande batean kalea garbitzen aritu ziren sortzen zen zaborraz kontzientziatzeko...”. Ikasi ahala gizarteari zerbitzua eskaintzea bilatzen dutela gaineratu du Etxeberriak: “Esaterako, LHko 3. mailatik aurrera bitartekari zerbitzua erabil dezakete, gatazka izan duten bi kideak euren kasa moldatzeko gai ez direnetan. Bitartekariak (LHko 6. eta 6. mailakoak) ez du euren arazoa konpondu behar, bien arteko komunikazioa eraikitzen lagundu baizik. Horretarako metodologia oso bat dago eta bitartekariak 16 orduko formazioa jasotzen dute”.

Zerbitzuez ari garela, bi ikasle sartu dira zuzendariaren gelan pozik eta ahots biziz kontatu dute argazkilari batek euren erakusketa aldizkari batean aterako duelako. Agirrezabalek azaldu du: “Eurek proposatu zuten beren marrazkiekin erakusketa egin nahi zutela. Astebetez dago pasilloan ikusgai, eta jolas garaian ordu-laurdenez eta eskola bukatutakoan beste ordu-laurdenez, beraien arduratu behar dute bertan egon eta azalpenak emateaz”.

ADIMENAK, PLURALEAN

Howard Gardnerrek 8 adimen deskribatu zituen. Egun, adimen gehiagor ere ez hitz egiten da (jarraian zerrendatutakoez gain, **pedagogikoaz** eta **digitalaz**, esaterako). [Gardnerrek eta bere teoriak jakiteko, *Hik Hasi* aldizkari 51. eta 52. aleetara jotzea gomendatzen dizugu].

✓ **Hizkuntzetarako**: Ideiak eta sentimenduak ahoz eta idatziz adierazteko gaitasuna. Hizkuntzaren bidez komunikatzeko eta informazioa lortzeko gaitasuna.

✓ **Musikala**: Musika formak hauteman, bereizi, eraldatu eta adierazteko gaitasuna. Erritmoak, tonuak, melodiak... antze-man eta erabiltzeko trebetasuna.

✓ **Ikus-espaziala**: Irudien bidez pentsatzeko eta ideiak grafikoki jartzeko trebetzia, sistema sinbolikoak erabiliz. Espazio antolakuntza irudikatze eta eraldatzeko gaitasuna.

✓ **Naturarekikoa**: Natur mundua, bizia, landareak, animaliak... ulertzeko trebetzia. Behaketak, hipotesiak, sailkapenak, ondorioak... erabiltzeko gaitasuna. Ingarugiroa zaintzearen garrantzia ulertzeko gaitasuna.

✓ **Pertsonen artekoa**: Besteak ulertzeko eta beraiekin elkarreragiteko gaitasuna. Pertsonen nahiak, asmoak, motibazioak... antzemateko eta ulertzeko gaitasuna. Lankidetzan aritzeko trebetasuna.

✓ **Norberarekikoa**: Nork bere burua, bere indarrak eta ahuleziak ulertzeko gai-

tasuna. Barneko sentimenduak, pentsamenduak... antzemateko, hausnartzeko eta kudeatzeko trebetasuna.

✓ **Kinesikoa**: Gorputzaren bidez ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna. Gorputza eta zentzu-organoen bidez informazioa jasotzeko trebetzia.

✓ **Logiko-matematikoa**: Operazio matematikoak, problemak, hipotesiak, ondorioak, argudioak... prozesatzeko trebetasuna. Pentsamendu logikoa erabiliz, patroia abstraktu eta konplexuen arteko harremanak antzemateko gaitasuna.

Hirukide ikastetxean adimen **espirituala** ere lantzen dute (batzuek **transzendental** edo **existentziala** deitua). Etxeberriak zehaztu duenez, “ez da erlijio kontua. Berdin dio ikasle batek erlijio bat edo bestea praktikatzan duen, edo batere ez. Adimen espiritual hori denok daukagu. Bizitzaren aurrean planteatzen ditugun galderak dira: zer egiten dut nik hemen? Zertarako jaio gara? Zer gertatzen da heriotzaren ondoren? Bakoitzak emango dio bere erantzuna”. Agirrezabalek zera gehitu du: “Adimen transzendentalarekin lotua dago, baita ere, egunero ko hainbat momentutan gozatzeko gai izatea eta gozamen horretaz jabetzea. Esaterako, artelan baten aurrean jarri, gainerakotik deskonektatu eta miretsita egoteko gai izatea”.

Hezkuntza gelako hormetatik ateratzeko ez dela diseinuzko eraikin garestirik behar azaldu digute, pasilloan lau-hankan dabilzan ikasleen artean pasa eta baratze bertikal bihurtutako

eskaileretan beheara aterantz lagundu diguten bitartean: “Teilatua ez gainerako espazio denak baliatzen ditugu. Guk ez badugu irudimenik erabiltzen, nola eskatuko diegu ikasleei?”. ■



Beasaingo Ikastola
HERRI ONURAKO KOOPERATIBA

**EREITEN
DEN BIZIA**

**Adi bizitzetik adimena
nor izatetik aniztasuna.**

Beasaingo Ikastola: izateko sortu eta sortzeko izan.

BERRITZAILEA. ELEANITZA. EUSKALDUNA ETA GERTU-GERTUKOA

Urbialde 2. Beasain · ☎ 943 889 617 · www.beasaingoikastola.eus · beasain@ikastola.eus



Jordi Via, Bartzelonako Udaleko komisionatua

“OINARRITIK ANTOLATUTAKO SAREAREKIN SOILIK BULTZA DAITEKE EKONOMIA SOZIALA ERAKUNDEETATIK”

Ez da lan xamurra dozenaka urtean herri mugimenduetatik aldarrikatutakoa instituzioetatik defendatu eta sustatzea. Badaki zerbait hortaz guztiaz Bartzelonan harrera egin digun Jordi Viak. Urte luzez ekonomia sozial eraldatzailearen aitzindarietako bat izan ostean, Bartzelonako Garapen Agentziatik eragiteko ahaleginean ari da orain, udal gobernu berriak eman dion aukera baliatuta.

Itsaso Zubiria Etxeberria / Lander Arretxea Bereziartua

@itsasozubiria / @larretxea

ARGAZIAK: SÁNDRA LÁZARO

Kostata, baina lortu dugu bere bulegoan hitzordua lotzea. Metro geltokitik atera eta mugikorreko GPSak gidatuta 200 metroko ibilbidea egitean topatu dugunak kezkatu gaitu. Bartzelonako Garapen Agentzia delakoa hiru eraikinek osatzen duten munstro handia da. Eraikin horietako batean sartu gara zailtasunak, eta galdetu ostean, albokora bidali gaituzte. Segurtasun arduradun batek egin digu harrera, eta gutako baten izen-abizenak eta NAN zenbakia eskatu dizkigu hirugarren pisura bidali aurretik.

60 pertsona inguru biltzen dituen ofizina erraldoi bat aurkitu dugu han. Zain egoteko eskatu digute, eta berehala iritsi da Viaren idazkaria. Bere atzetik gurutzatu dugu pasilo luzea, amaieran dagoen bulegoraino, eta hitzik trukatu gabe utzi gaitu bertan, elkarriketagaia parean dugula.

Bizpahiru keinu nahikoa izan ditu segurtasun arduraduna, Silicon Valley tankerako eraikina eta pasiloaren amaierako bulegoa guri bezain arrotz

egiten zaizkiola adierazteko: “Ni zuetako bat naiz”, irakurri dugu lerro artean. Grabagailua piztu dugunerako, kezka guztiak uxatu zaizkigu.

Kontaiguzu, nola iritsi zara halako kargu batera? Zein izan da zure ibilbidea?

Ea laburtzen asmatzen dudana. Ezker antiautoritario kataluniarretik pasa ondoren, 80ko hamarkadan borroka instituzionalean sartzeko saiakera frustratu baten parte izan nintzen, Bloc d'Esquerra d'Alliberament Nacional izena eman geniona. Akatsak eginez ikastea gogorra da, baina oso erabilgarria baliatzeko prest bazaude. Saiakera kaskar horren ondoren, gutako batzuek erabaki genuen gizartea eraldatu nahi bagenuen ezin ginela mugatu indar instituzionala gureganatzeko ahaleginera. Beste gizarte bat nahi bagenuen, hori eraikitzen hasi behar ginela.

Orduantxe, eta kaleetan salatzen genuena defendatzen zuten enpresentzat lanean genbiltzala konturatuta, erabaki nuen proiektu kooperatibo

bat sortzea. Geroztik, 35 urtean aritu naiz bestelako ekonomia eredu hori ikusarazi eta praktikaren bidez posible dela frogatu nahian. Aseguru etiko eta solidarioak eskaintzen dituen Ars kooperatibako kide eta sortzaile naiz, eta urte horiek guztiek beste gauza askotarako ere eman dute: Kataluniako ekonomia sozial eta eraldatzaileko sarea (XES) sustatzen buru-belarri ari zeko, adibidez.

Halako batean, udal gobernuak aldatzen da, eta telefonoak jotzen du.

Duela hamar hilabete eskas pentsaezina zen niretzat horrelako toki batean egotea. Baina zer egin, borondate eraldatzaile garbia duen udal gobernu berri batek ekonomia kooperatibo sozial eta eraldatzaileko ordezkari izatea proposatzen dizunean? Gainera, oso interpelazio zehatza egin zidaten: “30 urtez ekonomia eredu hau instituzioetatik ere sustatzea ezinbestekoa dela aldarrikatu duzu. Orain etorri eta erakutsi nola egingo den”.



Erronka honi baiezkoa ematera eraman nauena, hala ere, hauxe izan da: benetan uste dut Bartzelonan eragin daitekeela erakundeetatik. Eta hala dela sinesten dut badagoelako jada oso kontuan hartzekoa den errealitate bat, bultza daitekeena: asmo eraldatzaileko kooperatibak, merkatutik kanpo garatu diren proiektu komunitarioak, elkarteak...

Zenbatekoa da Bartzelonan sare eta mugimendu hori?

Denera 4.700 enpresa eta entitate baino gehiago daude ekonomia soziala esaten diogunaren barruan, 53.000 lagun baino gehiagori ematen diote lan, 500.000 lagun dira gutxienez kontsumo kooperatiba bateko kide, ekonomia komunitarioko 300 proiektu baino gehiago daude. Badago oso bizirik dagoen errealitate bat, anitza, baina oinarri berearekin: praktikaren bitartez bestelako ekonomia bat sortzen dutela, pertsonen zerbitzura dagoena, demokratizazioan eta erantzukizun sozialean sakontzeko borondatea duena.

“Benetan uste dut Bartzelonan eragin daitekeela erakundeetatik. Eta hala dela sinesten dut badagoelako jada oso kontuan hartzekoa den errealitate bat”

Nola elikatzen da Udaletik instituzioen babesetik kanpo garatu den sarea?

Aurreko udal gobernuek ekonomia soziala ulertzeko zuten modua oso bestelakoa zen. Ikuspegi asistentzial-paliatibo batetik heltzen zioten gaiari, soilik birgizarteratzeko enpresak lagunduz. Berritasuna da, gure ikuspuntuari dago-kionean, ekonomia sozial eta eraldatzailearen errotik sustatu behar dugun eredu sozio-ekonomiko gisa bizi dugula.

Bederatzi hilabete daramatzagu lanean, eta denbora honetan, lan il-doa zehazten ari gara, baina XESen eta gaia urte luzez landu duten eragileen lan eta ondorioetatik abiatuta betiere. Ondorengo urteetan Udaletik emango ditugun pausuak markatzen ari gara, baina alor horretako eragileekin kontrastatuko dugu parte-hartze prozesu baten bidez. Elkarlana da gakoa, nahiz eta beti ez den erraza izaten.

Eredu alternatiboa sustatzeko aukera ona izan daiteke kontsumoa. Nola kontsumitzen du Bartzelonako Udalak?

Ekonomia alternatiboak sustatzeko formakuntza eskaintzea da bide bat, jada sortuta dagoena bultzatzeko baldintzak egokitzearekin batera. Baina bai, Bartzelonako Udalak 2.000 milioi euroko gastua du urtean, eta etikoki arduratsua den erosketaren egitea da gure helburua. Bultzatu nahi ditugu guk aldarrikatzen ditugun balore horiek bere egiten dituzten enpresak.



“Eraldaketa soziala helburu izanik, ezin da kooperatibismoa kooperatibismo instituzionalizatuenaren esku utzi”

“Bartzelonako Udalak 2.000 milioi euroko gastua du urtean, eta etikoki arduratsua den erosketa egitea da helburua”

Klausula sozialez ari zara?

Bai. Lehendik badaude klausula batzuk, baina aurretik esan bezala, izaera asistentzial-paliatiboa dute; eta guk harago doazen pausoak beharrezkotzat ditugu merkatu soziala osatzeko. Helburu hori duten enpresak bultzatzeko positiboak diren baldintzak sortu behar ditugu klausula horiekin.

Badaude, ordea, baldintza horiek betetzen dituzten eta kapitalismoaren logiketan funtzionatzen duten kooperatibak ere.

Horrekin arazo bat daukagu, bai. Eroski kooperatiba da. Enpresarik konbentzionalenak ere gutxiengo horietara iritsi beharko luke, eta tamalez ez da horrela. Baina hala balitz ere, ez da nahikoa. Bilatu beharko ditugu formulak klausula horien bitartez merkatu soziala sareten lagunduko duten enpresa txiki eta ertainak bultzatzeko.

Sare posible horren bueltan ere ez da dena erraza, ordea. Nola kudeatzen dira ezinikusi eta konfrontazio horiek?

Eraldaketa soziala helburu izanik, ezin da kooperatibismoa kooperatibismo instituzionalizatuenaren esku utzi; merkatu logiken barruan funtzionatzen duten enpresa ohikoen jarrera hartu eta desagerraraziko baitute izaera kooperatiboa. Garrantzitsua da batzuk zein besteak non dauden jakitea eta desber-

dintasun horiek egitea. Zuenean adibide ona duzue Mondragonekin eta Olatukoop-ekin.

Bestalde, distantzia horiek badaude la argi izanda ere, gai izan behar dugu tartean harresirik ez egiteko. Ezin dugu inkomunikazioan eta sektarismoan erori eredu alternatibo baten eraikuntzan pausoak eman nahi baditugu. Aliantzak sortu behar ditugu eraldaketa soziale-rako: aliantzak herri mugimenduekin alde batetik, eta sare sozio-enpresariarekin eta zenbait kooperatibarekin bestetik. Ezin da bestelako merkatu bat sortu fokua desberdintasunetan jartzen badugu, ez eta bakarrik apustu erradikalenekin jokatzeko badugu; oraingoz behintzat oso zaila da. Elkarlanerako espazioak aurkitu behar ditugu.

Mondragonen eta Olatukoop-en arteko desberdintasunak aipatu dituzu. Laster Euskal Herria zator eta bertan sakonago azalduko diguzu hau?

Lankik antolatutako *Kooperarock* jardunaldietara gonbidatu naute. Lanki orain bospasei urte ezagutu nuen, eta interesgarria iruditu zitzaidan Mondragon taldearen garapenari buruz egiten duen irakurketa, izaera kooperatiboa galtzearen arriskua bezala berreskuratzeko garrantzia. Maiatzaren 10-11n egongo naiz Euskal Herrian eta izango dugu honetaz hitz egin eta sakontzeko aukera. ■



**ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**



**25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean**

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

JENDEOK IRATZARTZEN BAGARA, IRATZARRIKO DA EUSKAL HERRIA

Nuestro pueblo despertará / David Jaime y la República vasconavarra

(Txalaparta) Jose Mari Esparza Zabalegiren liburu ziztagarria eta kitzikagarria da. David Jaime tafallarra zen, politikaria. Hona, egungo beste idazle tafallar batek haren inguruan idatzitako nondik norako zenbait.



Mikel Asurmendi
@masurmendi

1936ko gerraz ongi idazteko, funtsezkoa da Euskal Herriko historia ongi ezagutzea. Hartara, alde batekoen zein bestekoen “memoria” eta biktimen “erreparazio” duina egin ahal izateko, justizia egiteko.

Xede horretan, norbanakoen moral, etika edota ideologia ongi arakatzea berealdikoa da. Jose Mari Esparza Zabalegiren *Nuestro pueblo despertará / David Jaime y la República vasconavarra* liburuan ezaugarri horiek guztiak ongi uztartuta daude. Liburuaren ideologia azpimarratu nahi dut, haatik. Jendeok ez ditugu ezagutzen iragan mendean gure herrian loratu ziren mugimendu politikoak, ezta urrik ere. Esaterako: nor izan zen David Jaime? Ba al dakigu euskal herritarrok *República vasconavarra* ekimen gartsua izan zela? Zer dakigu gure historia berriaz? Zer dakigu euskal politikaz?

David Jaime gure herria iratzarriko zen esperantzaz bizi izan zen, gerra aurretik, gerran, zein gerra ondorenean. Kanbon (Lapurdi) lurperatu zutenean, bere memorian “euskal errepublikaren” eta “gure herria iratzarriko da” ideiak eraman zituen hilobira.


David Jaime Dean tafallarra zen (1887-1949). Euskalduna, bai, euskal hiztuna. Euskaraz idazten zuen. Idatzi, nori? Bada, besteak beste, Eusko Jaur-laritzako lehendakariari –Jose Antonio Agirre eta Fermin Leizaolari– idatzi zien euskaraz. “Abertzale” ez zen batek “abertzale” zirenei euskara herri honen funtsa zela oroitarazten zien. Abertzale edo nazionalista izan gabe, Jaimek funtsezko ezaugarritzat zituen euskara eta euskalduntasuna. Ez bakar, bistan da.

Errepublikanoa eta liberala zen: “Askatasuna da gizakiaren idealik adierazgarriena. Berau gure animoetatik ez da desagertzen, ez bada gure bihotza zimeltzen eta gure espiritua doilortzen direlako. Ez dago hogeiterturerekin errepublikanoa ez den espiriturik”, pentsamoldea bere egin zuen.

1936ko Gerra Zibilean gertatu zenaz gaingiroki dakigu, eta batez ere, euskal nazionalismoaren inguruko gertakarien arabera eta haren ideologiaren arian gauzatua. Euskal errepublikanismoaren aurrekarietaz eta II. Errepublikaz gehiago jakiteko, David Jaimek –eta haren kideek– urratu zuten bidea ezagutzea zinez garrantzizkoa da, baldin eta Euskal Herria bere osotasunean ulertu eta integratuko badugu.

David Jaimeren kideak ez ziren soilik Alderdi Errepublikanoak, kideak ziren ere euskal nazionalistak, abertzaleak, sozialistak, komunistak, anarkistak... Falangistak, erreketak edota monarkikoez beste, ia gainerako guztiak. Nola egin bat, nola elkartu, ordea, Francoren altxamendu faxistaren aurka? Dilema hori bizirik dago gaur egun ere. Francoren ondorengoak bizirik egon ez ezik, haiek baitira nagusi Espainiako Estatuaren aparatuan. Historiaz ari zaigu liburugilea, eta aldi berean, zeharka, egungo egoera politikoa ulertzeko gogotatzera garamatza.

Eusko Jaur-laritzaren berri badugu, 1936koaz eta gaurkoaz. Baina ba al dakigu Nafarroako Kontseilua izan zela? Nafarroan abertzaletasun errepublikanoa loratze bidean zegoela, gerrak errotik moztu zuena? 1977ko trantsizioa



iruzurra izan zela pentsatzeko motibo asko dago, baita PSOEek orduan hartu zuen jarrera doilorra (ez zen bakarra izan, kasu) eta egungo bere jarrera ere, kritikagarriak direla. Bada, liburua irakurrita mina eta jakin-mina areagotuko zaizkizu. Nafarroako sozialistek jokatu duten rola “ederki paratua” ageri da. Eta izen baten arrastoari segida eman nahi badiozu, honatx: Victor Manuel Arbeloa.

Euskal historiako protagonista askoren izenak eta gertakariak daude liburuan. Bakoitzari dagokion heinera ekarriak, historia interpretatzea ez baita samurra. Horrek artxiboko lan gaitza eskatzen du. Horretaz asko daki Esparzak, eta berriz ere ongi baino hobeto frogatu ditu bere talentua eta lanerako tirria. David Jaime Kanbon lurperatuta dago, eta horregatik ere Iparraldearen orduko egoeraz jabetzeko ere balio digu liburuak. Iparraldeko historiaren heina eta gaur egungoa neurtzen jakiteko baliagarria.

Jose Mari Esparzaren idatz molde ziztagarriak akuilatuko zaitu alaiki. Gure historiaren pasarte gogorrak ere ederki gozatzen baitaki luma zorrozduak. David Jaime herrikidearen espiritu anaikidea du Jose Mari Esparzak. Gure historiako protagonista ezezaguna. Gainerakoak liburu kitzikagarri honetan dituzu. Jendeok iratzartzen bagara, iratzarriko da Euskal Herria. ■

HIZKUNTZAN ERE, KIROL HEZITZAILEAK HAURREN EREDU

Kirola D ereduan, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko? Galdera horien bueltan antolatu zituzten apirilaren 21 eta 22an Udaleko Euskara Zerbitzuen Topaketak Lasarte-Orian (Gipuzkoa). Hezkuntza arautuan euskarari garrantzia ematen zaion modu berean hezkuntza ez arautuan ere euskara sustatzeko beharra azpimarratu dute. Izan ere, bereziki kirolak gazteen aisialdiko denbora zati handia okupatzen duela aintzat hartuta, euskaraz egiteko aukera bermatu beharra dago.



Malen Aldalur Azpillaga
@malenalalalur

Horretarako hainbat jarraibide eman dituzte topaketetan, eta datozen lerroetan hiru adibide jaso ditugu: Burlatako Futbol Eskola, Irungo kirol eskola eta Arabako Foru Aldundiak aisialdia euskaraz sustatzeko egindako gida.

Burlatan, futbola euskaraz

Burlatan (Nafarroa), Burlatako Futbol Eskola sortu zuten hainbat gurasok 2009. urtean, kirola eta euskara eskutik helduta. Sortzaileek eta sustatzaileek azaldu dutenez orain arte Burlatan, eta Nafarroan orokorrean, euskarari lotutako politikak oso erasokorrak izan dira. Zailtasun ugari aurkitu dituzte bidean, baina gaur egun umeek euskaraz eta euskal giroan gozatzen dute futbolaz.

“Burlatan, kirol bakoitzak bere kasa funtzionatzen du eta kirol patronatua da guztia koordinatzeaz arduratzen dena”, lehen ez zegoen aukerarik kirola euskaraz egiteko, eta egoera horren aurrean futbola euskaraz praktikatu ahal izateko borroka abiatu zuten 2004an;

bost urteren ondoren lortu zuten azkenean Burlata Futbol Eskola. Ez da noski, herriko futbol talde bakarra. Aurretik ere bazegoen Burlades Futbol taldea herrian, zeinak gaztelania hutsean funtzionatzen duen. Bien arteko aldea nabarmena da: “Guk filosofia argia daukagu: Futbola euskaraz”.

Kirola euskaraz egiteko erabiltzen duten estrategiari dagokionean Burlata Futbol Eskolakoak bat datoz Larrañagarekin: “Umeak eroso sentitzea nahi dugu, ez dizkiegu gaizki esanak zuzentzen. Umeak eroso eta gustura sentitu behar du; helburua eremua babestea da”, azaldu dute.

Horrelako ekimen bat sortzeak denen parte-hartzea eskatzen du: hasieran ez zituzten diru laguntzak jasotzen, eta kirola euskaraz egin ahal izateko gehiago ordaindu behar izatea bidezkoa ez zela ondorioztatuta, beste leku batzuetatik lortu behar izaten zuten finantzazioa. Gaur egun, umeek gain, gurasoek, udalak, herriko komertzioek... ere la-



Burlatako Futbol Eskola (ezkerreko argazkian) 2009an sortu zuten hainbat gurasok. Eskuinean, Irungo eskola kirolako partaideak. Argazkiak beraiek utziak dira.

guntzen dute Burlatako Futbol Eskolak aurrera jarrai dezan: “Partaidetza nabarmena da partidetan, guraso asko aritzen dira laguntzen, taberna ere jartzen dugu, eta euskal musika bozgorailuetatik; oso giro polita sortzen da”.

Orain, Burlatako kirol patronatuaren baitan dago futbola euskaraz egiteko aukera, eta azaldu dutenez, harreman ona daukate gainerako kirol taldeekin. Horrez gain, Nafarroan euskaraz aritzen diren gainerako futbol taldeekin topaketak egiten dituzte; “umeak elkarren artean sozializatu eta euren arteko harremanak euskaraz sortzeko”.

Irunen 35 kirol hezitzaile

Irunen ahalegin berezia egin dute eskola kirola euskalduntzeko. Udaleko eta BPXport enpresako zenbait arduradunek azaldu zuten proiektua.

Duela 11 urte Irunen ume gehienek gaztelaniaz hitz egiten zuten kirola egiten zutenean. Pazientziarekin eta denborekin euskaraz aritzea lortu dutela



azaldu dute. Horretarako, begiraleen formakuntzan eta profesionalizazioan egin dute apustua. “Begiraleak eta gurasoak erreferentzia dira umeentzat eta berebiziko garrantzia du horiek zein hizkuntzatan hitz egiten duten”. Begirale lanetan arituko direnak denbora gehiagoz eta formakuntza hobearekin aritzeko lanpostu publikoak sortu zituzten: gaur egun 35 kirol hezitzaile ari dira lanean. Euskararen erabileran eragin eta hezitzailea izan nahi duen programa osatzea da helburua.

Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, azken urteetako datuetan ikus daitekeen euskararen erabilerak nabarmen egin du hobera, nahiz eta oraindik hainbat arlotan hobetu beharra nabaritu duten. Epaileak eta boluntarioak kirol eskolaz kanpokoak direnez, ezin dute oraindik haien gutxieneko euskara maila ziurtatu. Bestalde, eskola kirolean neska gutxi ari dela ohartu dira eta egoerari buelta emateko beharra aitortu dute.

Hainbat gako azpimarragarri aipatu dituzte, beraz, kirola eta orokorrean aisialdia euskaraz egiteko: euskara jardura eta sentipen positiboekin lotzeko ahalegina egin –saihestu zuzentzea–, euskarari buruz gutxiago eta euskaraz gehiago hitz egin, eta begiraleen eta hezitzaileen profesionalizazioa bultzatu. ■

ARABAKO BEGIRALEENTZAKO GIDA

Begirale, begira egotetik ekitera izenburupean hitz egin zuen Jokin Larrañaga Arabako Euskara Zerbitzuko buruak. Haren hitzetan euskaraz ikastetik euskaraz bizitzera igarotzea da gakoa. Izan ere, Arabako datuen arabera, gazteen erabilera %16koa da, D ereduko ikasleek eskolan baino ez dute erabiltzen euskara; aldiz, eredu bera aisialdira estrapolatu eta begiraleak horretarako prestatuz gero erabilera %14 handituko litzatekeela azaldu du: “Euskara sozializatzeko erabiltzean dago gakoa”.

Eskolan euskaraz ikasteaz gain, autobusean, jantokian, bazkalosteko tartean eta eskolaz kanpoko jardueratan euskaraz egiteak euskararen erabilera nabarmen areagotuko luke. “Ez da D ereduan bakarrik eragin behar, ez da kirolean bakarrik eragin behar; euskarak leku guztietan izan behar du presentzia”, uste du Larrañagak. Horretarako, ezinbestekoa da aisialdian edo eskolaz kanpoko ekintzetan begirale direnak formatzeari. Arabako Foru Aldundiak *Haur eta gazteen jardunerako hezitzaileen zako gida* atera du euskaraz soziali-

zatu eta euskararen erabilera handitzeko beharrezko gakoa emateko.

“Euskaraz bizipenak behar dituzte”, dio Larrañagak. Azaldu duenez, euskara eskolarekin soilik lotzen badute, hizkuntza horrekin harremana ahula izango da. Egunerokoan euskara entzuten eta erabiltzen badute, aldiz, euskaraz bizipenak izango dituzte; “eta hori da bidea euskara eurenaganatzeko”.

Bi ideia nagusi azpimarratu zituen Larrañagak: “Ez da eraginkorra etengabe euskaraz hitz egiteko errepikatzea edo euskaraz ez egiteagatik errudun sentiaraztea”; eta “ez hitz egin hainbeste euskarari buruz eta hitz egin gehiago euskaraz”. Euskara gustuko egoerekin eta bizipen positiboekin lotzea da helburua, eta begiraleek horretan lagundu behar dutela uste du. Hori lortzeko gakoa elkarrizketak sortzea, gorputz hizkera eta mimika erabiltzea, eta errefortzu positiboak ematea izan litezke, besteak beste.

Begiraleentzako gidak lau alor lan-tzen ditu: kultura, aisialdia, euskara eta kirola.

Aitaren batean



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Karrazkilloa edo karraskila (*Rhamnus alaternus*) ez da ugaria gurean. Berozalea da, eta gozo bizi ohi da zaletasun hori bera duten beste zuhaitz eta zuhaixken artean, hala nola gurbitza (*Arbutus unedo*), artelatza (*Quercus suber*), ereinotza (*Laurus nobilis*), ametza (*Quercus pyrenaica*) eta izenaren bukaeran “-tza” ez duten beste batzuk; adibidez, txilar zuria edo zurikatza (*Erica arborea*), gar-txu hostoestua (*Phillyrea angustifolia*), legeltxorra (*Pistacia lentiscus*) eta Portugalgo erramua (*Prunus lusitanica*). Lurralde heze epelak ditu gustuko. Euskal Herriko itsasaldeko paradisuan gozo etortzen da, ez ordea nonahi, atsegin dituen lurrak lehorrak, nitrogeno gutxi dutenak eta pH altukoak dira; ez alferrik esan ohi da karrazkilloaren bizitokiak artearen lurrak direla.

Espezie dioikoa da; hau da, landare batzuk emeak dira, eta beste batzuk arrak. Aurrekoan esan nuen, arraren polenak emea ernaltzen duenean azken horrek ematen duen fruitua janez gero tripak aitaren batean hustuko dira. Ale asko ahoratuz gero, berriz, barrunbean odoljario edo hemorragia arrisku galanta. Bere adartxoek eta hosto berrien ura odola urtzeko hartzen da; Pío Font

Karrazkilloa (*Rhamnus alaternus*).

i Quer botanikari katalanak ederki azaltzen du *Plantas Medicinales, El Dioscorides renovado* liburuan (1961): atzaparkada bat katilukada uretan jarri sutan, irakiten hasten denean aitagure bat esan eta sutatik kendu. Goizetan edan behar omen da, baraurik, azukrerik nahastu gabe eta milikerietan eta mizkinkerietan ibili gabe, rau barrura! Gaur egun, ilargiari eskerrak, aitagurerik ez dakigunez zer esan behar ote dugu? Zer bertso edo kantuk du aitagure haren luzera edo antzekoa? Dakienak bota beza.

Bere adarrekin makilak egiten dira. Azala artilea horiz tindatzeko erabil-

tzen da. Zura, trinkoa gogorra eta berdina, tornuan lantzeko ona da. Zur horri kiratsa dariola dio Gerardo Lopez de Guereñu etnografo eta euskaltzain ohorezko arabarrak *Botánica popular alavesa* liburuan (1975); baita ogi-labeak berotzeko erregai bikaina dela ere. Bere lehengusu *Rhamnus frangula* zumalikarrarena bezala, kirtenak egiteko egokia da. Lehengusu horri buruz, Luis Miguel García Bona biologista nafarrak bitxikeria polita dakar *Navarra, plantas medicinales* liburuan (1981): bere ikatz arina bolbora egiteko erabiltzen zen. ■

Europa bat-batean

KANTU INPROBISATUAREN NAZIOARTEKO TOPAKETA

Uztailaren 11tik 15era

Goizetan, jardunaldi akademikoak Miramar Jauregian.
Matrikula zaitetz www.uik.eus atarian!www.europabatbatean.eus



EKO GUNEA

EKO GUNEA KO UDALEKUAK

Txikienak ere naturan gozatzen



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Eguraldi ona iristearekin batera, gutako asko hasi gara udarako planak egiten. Oporrak, hondartza, bidaiak, mendia... Haur askok, ordea, zerbait gehiago ere izanen du buruan: "Udalekutara joaterik izanen ote dut aurten?"

Euskal Herrian udaleku mota asko topa ditzakegun arren, guztiek ez dute naturarekiko harremana sustatzeko eta ingurumenaren gaia zuzenean lantzeko aukerarik ematen. Horretan ari dira, besteak beste, Kutxa Ekogunean (Gipuzkoa). "Iazko udalekutan baratzea landu genuen batez ere, eta haurrek sekulako erantzuna eman zuten", adierazi digu Maialen Sistiaga Ekoguneako hezkuntza eta aisia arduradunak.

Naturan bizitzeko, orientazioa eta biziraupena ardatz

6-12 urte bitarteko haurrentzat antolatzen dituzte udaleku irekiak Ekogunean. Goizero bertan elkartzen diren umeek naturan bizitzeko eta hura ulertzeko tresnak jasotzen dituzte. Helburua, antolatzaileen arabera, Ekogunean lantzen dituzten edukiak (ingurumena, ekologia, naturaren zaintza) gizarteratzea da; hitzetatik ekintzetara pasatzea.

Haurrekin, noski, jolasen bidez lantzen dituzte gaiok: "Aurten batez ere

orientazio eta biziraupen gaiak landuko ditugu udalekutan: ikasiko dugu, adibidez, landare jangarriak identifikatzen, txabola bat egiten edota iparrorratzarekin eta astronomia erabiliz orientatzen".

Parkeko hainbat gune bisitatuko dituzte egunero udalekuko partaideek: gaur baratzea, bihar ibaia, etzi larrea, hurrena basoa... Modu honetan, haurrek zuzenean, beren begiekin eta eskuekin ikasten dituzte naturako elementuak.

Aurten, ludoteka ere bai

Sei urtetik beherako haurrentzat aisialdirako eskaintza falta zegoela sumatu dute Ekoguneako kideek azken urteetan. Horri buelta emateko antolatu dute aurten, lehen aldiz, ludoteka. Udalekuen antzeko helburuak izanik ere, gehienbat haur parkean egonen dira ludotekako haurrak (3-10 urte bitartean). "Era autonomoan jolasteko eta jolas kooperatiboetan parte hartzeko aukera izanen dute". Hala ere, ludotekatik baratzerara eta ibaira ere eginen dituzte irteerak, beraz, txikienak ere izanen dute Ekoguneako txokoez gozatzeko aukera.

Etorkizuneko baratzezain eta landarezain gatzetxoek badute toki aproposa uda honetan ere. Txikitatik gozatzen baitugu eskuak lurrez zikitzen... ■

BIZI BARATZEA

**Gure kultura
iraultzen ari den liburua**

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

[@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €

Harpideentzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Maiatzak 4: Orkoien

Auzalar ikastetxean, 9:00etan.

Maiatzak 13: Baliarrain

Udaletxean, 19:00etan.

Maiatzak 14: Busturia

Madariaga dorretxean (EAEko Biodibertsitate Zentroa), 11:30ean.

Maiatzak 15: Arama

Lekua zehazteke, 12:00etan. San Isidro eguneko ospakizunen barruan.

Maiatzak 17: Mañaria

Liburutegi zaharrean, 18:30ean. Kultur Astearren barruan. Udalak antolatuta.

Maiatzak 19: Altza

Tomasene Kultur Etxean, 19:00etan. Bizarrain Euskara Elkarteak antolatuta.

Ekainak 10: Mutriku

Galdona auzoko kanpinean, 20:00etan. Mutrikuko Baserri Elkarteak antolatuta.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

📞 943 371 545

MUSIKARIEI **ZIRIA** SARTU ZIETENEKOA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazustabarrena

Patras (Grezia), K.a. 709. Musika ekitaldi batean "Patrasko Perekides, erritmo emailak" musikariak zuzentzeko makila bat erabili zuela geratu zen jasota buztinezko taula batean. "Erdian kokatu zen, eserleku altu batean eserita, urrezko bastoi bat astintzen, txirula nahiz zitarra joleak inguruan zituela (...) Perekidesez urrezko makilarekin agindua eman zuenean, eskarmentudun artista guztiak batera hasi ziren jotzen".

XVI. mendean Giovanni Perluigi da Palestrinak ere makila handi bat erabiltzen omen zuen musikariei erritmoa markatzeko. Baina ziurrenik horiek salbuespenak besterik ez ziren izan. Luzaroan orkestretako lehen biolina edo *concertino*a izan baitzen kideei noiz sartu behar zuten adierazten ziena.

XVII. mendean zenbait orkestra zuzendarik oinekin lurra joaz edo txaloka markatzen zuten erritmoa, baina emanaldi luzeetan oso nekagarria zenez geroz eta maizago lurra bastoi batez jotzen hasi ziren. 1687ko urtarrilaren 8an, Jean-Baptiste Lully *Te Deum* bat zuzentzen ari zen, Louis XIV.a Frantziakoa gaixotasun batetik onik atera zela ospatzeko. Denbora makila luze batez adierazten ari zela, nahigabe, behatz bat jo zuen lurra jo beharrean. Zauria gangrenatu zitzaion, baina Lullyk ez zien utzi sendagileei behatza anputatzen eta infekzioa zabaldu egin zen.



Alondra de la Parra orkestra zuzendari mexikarra 2014an, batuta arin eta kaltegabea eskuan duela.

LA REPÚBLICA

Martxoaren 22an hil zen. Manchesterreko Hallé orkestraren emanaldi baten kronikak dio Daniel Turk zuzendariak ere 1810ean makila bat erabili zuela, baina lurra jo beharrean airean astintzen zuela. "Makila astindu beharraren beharraz, argi-armiarma jo zuen eta kristal zatiak gainera erori zitzaizkion". Bietako bat, edo makila txikitzen zuten edo zuzendariak euforia baretu behar zuten. Eta zuzendari grinatsuak lasaitzea zailagoa zirudienez, lehenengo aukeraren alde egin zuten.

Itxuraz, Carl Maria von Webber konpositorea izan zen, 1817an, Dresden an-

tolatutako kontzertu batean, ziri mehe eta arina, egungo batuten antzekoa, erabiltzen lehena. 1832an Felix Mendelssohn Londresera joan zen bertako Orkestra Filarmonikoarekin hainbat kontzertu ematera. Batuta erabiltzeko asmoa zuen, eta hasieran biolin-joleek kontra egin arren, azkenean makilatoxoz zuzendu zituen musikariak. Ez dakigu biolin-joleak garai batean zuten boterea ala begi bat galtzeko beldur ziren, baina hurrengo urtetik aurrera Londresko Orkestra Sinfonikoan batuta erabiltzea ohiko bihurtu zen. ■



SANTABANTA

Kutsadura Taj Mahal horitzen ari da

Urteak dira Taj Mahaleko marmol zuria horitzen ari dela, aldian-aldian tratamendu berezia ematen dioten arren; mausoleo ezagunaren azala ezin da urez garbitu eta *peeling* moduko bat egiten diote, buztin geruzak ipiniz eta kenduz. Georgiako Teknologia Institutuko Mike Berginek horitzearen jatorria ikertzea erabaki zuen eta marmola uretan disol-

ba ezin daitezkeen karbono partikula oso txikiek zikintzen dutela ondorioztatu du. Partikula horiek argi ultramorea xurgatzen dute eta horregatik hartzen du kolore hori-marroia. *Environmental Science & Technology* aldizkarian argitaratu denez, kutsadura Taj Mahalen distiratu eta, larriago dena, Agrako biztanleen osasuna arriskuan jartzen ari da. ■



ARGIA

ARGIA KOMUNITATEA OSATZEN

Abian da Lasarte-Oria ikusteko beste betaurrekoak ekimena



Itsaso Zubiria Etxeberria

@itsasozubiria

Zenbat lasartearrek ote daki ARGIAk bere herrian duela egoitza? Eta zenbat irakurlek daki hori? Batzuek bai, seguru, baina gustura ezagutuko nituzke datuak. ARGIAko lantaldeak pentsatuko du hori jakina dela, baina nire zalantzak baditut. Dena dela ere, proiektuaren hurrengo pausoa, ezagutzera emateko bidean doa.

ARGIAren komunitatea hazten jarraitzeko gogoia dago, eta herriz herriko lan-keta martxan da. Lehen geltokia Lasarte-Oria. Lehena diogu, ekimena beste herri batzuetara eramatea ere bada asmoa eta. Egunerokoan interneten eta astero pape-rean jorratzen diren gaiak dira ARGIAren baloreak, eta betaurreko horietatik begiratzeko munduari. Baina mundua kalean dago, eta hor eragin nahian ekin zaio bide honi; jendartean, behean, xehean balore horiekin eragiteko asmoz. Argia Eguna berreskuratu zen duela bi urte eta orain herriz herri bertako eragileekin eta ARGIAren komunitatearekin egin nahi da lan, herriko eragileekin elkarlanean ekimenak antolatuz, herritarrekin harreman zuzena mantenduz...

Lasarte-Oriak esanahi berezia dauka ARGIArentzat. 1990etik du egoitza

Orian, eta bertan argitaratu eta inprimatzen da aldizkaria. Gaur Ametzagaia taldeak lau enpresa eta berrogeita hamar langile ditu bertan.

Bada komunitatea, proiektuaren helburuak eta abar oso ondo... baina Lasarte-Orian zer egiteko asmoa dago?

Astebeteko egitaraua

Trantsizioak erakusketarekin emango zaio hasiera egitarauari maiatzaren 9an, eta hilaren 14ra arte egongo da ikusgai Mercero Aretoan, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Bisita gidatu baten bidez ARGIA ezagutzeko aukera izango da maiatzaren 10ean egoitza bertan (Zirkuitu ibilbidea, 15. pabilioia), 19:00etan; eta irekia izango da gerturatu nahi duen orontzat.

Eta osatzeko, Lasarte-Orian euskararen bilakaera. Atzera begira, aurrera begiratzeko mahai-ingurua egingo da maiatzaren 12an, Villa Mirentxun, 19:00etan. Hizlariak Mailu Arruti (Ttakun elkartean eta AEK-n aritua), Pello Sasiain (Euskara zinegotzi ohia) eta Marga Iturriza (Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko irakaslea) izango dira. ■

H28 aldizkari saretirikoak Mozal Legea landu du azken zenbakian



Gipuzkoako Aldundiak erdira jaitsiko du euskarazko hedabideetako publizitatea

Gipuzkoako Foru Aldundiak 700.000 euro bideratuko ditu hedabideetako publizitate instituzionalera. Diru kopuru horren herena zuzenduko dute euskarazko hedabideetara: 235.000 euro. 2015eko aurrekontuarekin alderatuta, erdira jaitsiko du euskarazko hedabideetako publizitatea -568.702 eurotik 235.000 eurora-, *El Mundo* egunkariak argitaratu duenez. Markel Olano Gipuzkoako Diputatu Nagusiak adierazi du neurri horren arrazoiak direla "herrialdeko hedabideen errealitate anitzari erantzutea" eta "ahalik eta biztanle gehien informatzeko erantzukizuna betetzea".

Publizitate instituzionalaren %15 euskaraz egiteko eskaria

EITBko medioetan agertzen diren iragarkiak aintzat hartu gabe, euskarazko hedabideetan agertzen den publizitate instituzionala %3koa dela adierazi du Jon Azkue PSE-EEko legebiltzarkideak. "Urritatz" jo du portzentaje hori, eta azaldu du legearen arabera euskara lehenetsi behar dela publizitate instituzionalan. Legeak ezarritakoa "bete" behar dela adierazi du, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu dio publizitate instituzionalaren %15 euskaraz egin dezala. Hain zuzen, 2010ean Gipuzkoako Batzar Nagusiek sinatutako akordioa ekarri du gogora. Akordio horren arabera, publizitate instituzionalera bideratutako zenbatekoa %15ekoa izan beharko luke.

Joxe Mari Lopetegiri omenaldia

IRUNEN ERREPUBLIKAK BAZEKIEN BERTSOTAN

Joxe Mari Lopetegi bertsolari errepublikanoak Irunen errekonozimendu nahikorik ez duela-eta, haren omenezko ekitaldiak antolatzen hasi da apirilean hiriko bertsozale talde bat. Omenaldi horrekin batera, Joxan Elosegik Lopetegiren hamar bertso-sorta berri aurkitu ditu. Aitzakia paregabea XX. mende hasierako bertsolaria merezi duen lekuan jartzeko.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Gehientsuena paper zaharretatik erreskatatu zela uste zenean aurkitu ditu Joxan Elosegik ale berriak: argitaratu gabeko hamar bertso sorta, Joxe Mari Lopetegi irundarrari ezagutzen zitzaizkion gehienak baino lehenagokoak eta tematika aldetik diferenteak. XX. mende hasierako politikari buruzko bertsoengatik ezaguna zen egilea bestelako kontuez ari da aurkitu berri den materialean: eguneroko bizitza, Irungo baserri giroa, euskarari eskainitako bertsoak... Aurkikuntza garrantzitsua da, klasifikatzen zaila den bertsolariaren beste dimentsio bat erakuts dezakeelako, haren izena berriz lehen lerrora ekartzearekin batera.

Badira hamabi urte *Joxe Mari Lopetegi, errepublikanoen bertsolaria* liburua Paper Hotsak argitaletxearen eskutik kaleratu zela. Jende asko harritu zen bilduma hartako bertsoak irakurri eta lerro artean imajina zitekeen pertsonaiarekin: kaletarra, apaizak oso gustuko ez zituen eta, batez ere, politikoki konprometitua, errepublikano porrokatua. *Rara*

» Aurkitutako bertso sorta berrietan Lopetegi ez da hain politiko ageri, eguneroko bizimodua eta gai lokalak ditu hizpide

» Ekainera bitartean bertsolari heterodoxo honen figura aupatzeko ekitaldiak antolatu dituzte

avis bat: han eta hemen bertso jarriak publikatu zituelako dugu bere berri; eta Joxan Elosegik sorta bakoitza zegokion testuinguruan kokatzeko egindako ikerketa-ahaleginari zor zaio Lopetegiren txataletatik argazki bat osatu izana.

Liburua irakurriz ikusten du irakurleak XX. mende hasieran euskaraz bizi zen herria ez zela saldu digutena bezain monolitikoa –dena eliza, dena ohitura–, eta kezka batzuk garaian garaikoak izateaz gain, historian etengabe errepikatzen direla. Nagusi den iritzia kontrastatzen dionak pasa behar dituen trago txarrak, adibidez. Behin entzunda, ez dira burutik erraz joaten Joseba Tapiak 2006ko *Real politik* diskoan musikatutako *Askatasunaz* sortakoak: nola astindu zituzten Lopetegi bera, Justo Garate eta Jose Miguel Gomendio Azpeitian 1931n, zergatik eta mitin errepublikanoa egitea otu zitzaielako herri bereziki karlistan.

Ez zion lumak dardararik egin Irungo bertsolariari erasotzaileak definitzeko: “*Santakruz zanen odol beretik / nazi dira nere ustez*”.



Irunez berreskuratu behar duen pertsonaia

Tapiaren pieza horren doinuarekin ari dira bertsoa kantatzen 40 bat lagun Irungo Oiasso museoan. 1875ean Lopetegiri jaiotzen ikusi zuen egun bera da, apirilaren 13a, Errepublikaren bezpera –kasualitateak ez omen dira existitzen–. Txingudiko Bertso Eskolako Bertso-tailerrak antolatuta, Joxan Elosegiri hitzaldia eskaintzen ari da Lopetegiri buruz, eta momentu batean publikoa animatu du, musika lagun, abestera. Nahiko lotsati ari dira denak, baina badu egoerak zerbait zirrargarria, batez ere *Askatasunaz* amaitu eta beste kanta bat jarri dutenean. Gerra Zibila hasi zenetik 80 urtera *Ekaitza* izeneko sorta entzunda –“... odol gorrituz gainbera asi zan / ugaldere Bidasua...”– Irunen hilabete eta erdiko setioa jasan zutenenganako omenaldi kutsua hartzen du eszenak.

Ondo gogoan dauka hiriak bestela ere estatu kolpe faxistak hautsitako Errepublika. Gipuzkoan, Eibarren baimenarekin, tradizio errepublikano handienetakoa duen lekua izango da, urtero apirila etortzen denean sumatzen denez. Baina Irunen sortu den imaginario errepublikanoak ez du Joxe Mari Lopetegiri oso kontuan hartu. Ez da “behar bezain eza-guna” Elosegiren ustez, muga handia delako hizkuntzarena: “Irunen batzuka bizi gara euskaraz eta jende gehiegi bizi da erdaraz”.

Hesi hori gaingitu nahian, Lopetegiri merezi duen lekuan jartzeko asmoz, talde txiki bezain dinamikoa galtzak bete lan ari da Bertso-tailerraren inguruan: Aitor Errazkin, Andoni Zelaia, Iñaki Portugal, Xabier Isasi eta Xabier Bengoe-txea ekitaldi ugariz osaturiko programa antolatzen ari dira, ekainera bitartean pertsonaia heterodoxoa lehen planora ekartzeko. Lerro hauek idatzi bitartean oraindik “sukalde lanean” ari direnez, hedabide honen bertsio digitalean informatuko dugu omenaldiarekin lotutako beritasunez.

Euskara galtzen ari den herrian bertsoan

Besteak etorri bitartean Joxan Elosegiren hitzaldiaz zerbait esan beharra daukagu, ia bi orduko jardunean Lopetegiri behar bezala kokatzeko datu asko eman baitzituen. “Bere garaiko seme” gisa aurkeztu zuen bertsolaria hitzaldiaren hasieran. “Giro liberalean sortu eta hazi

zen, aita boluntario liberala zuen; eta Lopetegik ez zion bere herriko giroari sekula aurre egin”.

Pertsonaia urbanoa zen, hitzaldia entzuten ari garen museotik 100 metro eskasera bizi izan zen, Santiago kalean. “Kontatu digutenez gizon alaia zen, herriko festa eta ekitaldi guztietan parte hartzen zutenetakoa”. Festaren eskutik, bertsoa. “Eta bertsoa ez dago ulertzetik ez badugu komunitatean, herrian kokatzen. Orain nekez suma genezake Irunen horrelako komunitaterik –hale-re badugu, zorionez–, baina garai hartan Lopetegiri eta beste asko izango ziren bertsoan aritzeko gai. Bera izango zen onentsuenetakoa”.

Herria zena hiri izateraino handitzearekin aldatu zen komunitatea eta “erdara pixkana-pixkana nagusitzen” ikusi zuen. Elosegiren arabera, XX. mendeko lehen hamarraldiaren bukaera iritsi zenean, dagoeneko hizkuntza nagusia ez zen euskara Irungo kaleetan. “Lopetegiri horren lekuko primerakoa izan zen. Giro politikoaren aldekoa zen, baina aldaketa horien aurrean izugarri sufritu zuela ikusten da bere aurreneko bertsoetan”. *Ibaizabal* aldizkarian 1903an publikatutako *Semeak amari* sorta, argitaratu zuen lehenbizikoa, da horren erakusgarri: ama euskara da, eta sufritzen ikusten duen semeak “zu orrela utzi baiñan / naiago nuke ill” esaten dio azken puntuan.

» JOXAN ELOSEGI

“Lopetegiri ez da behar bezain eza-guna Irunen”

» “Bere garaian Lopetegiri eta beste asko izango ziren Irunen bertsoan aritzeko gai. Bera izango zen onentsuenetakoa”

» “Ez zen langile soila: negozioak izan zituen, etxegilea izan zen, igeltseroen kontratista”

Errepublika eraiki nahi zuen kontratista

Lehenbiziko urteetako bertsoetan ageri da hizkuntzarekin daukan kezka hori. Euskararen galeraren aurrean, baina, “Lopetegiri ez zekien zer egin behar zen garbi” Elosegiren ustez. Euskararen egoera baino, beste gai batzuk dira nagusi: “Ezagutzen ditugun bertso gehienak politikoak dira, batez ere kausa baten aldekoak: Errepublika”. 1911. urtean publikatu zituen lehenbiziko bertso errepublikazaleak, urtebete lehenago hil zen Francisco Bellido Gipuzkoako errepublikanoen aitzindari eta adiskidearen omenez. Urte horietan izendatu zuten Irunen zinegotzi ere. Ordurako bazen norbait: “Ez zen langile soila: negozioak izan zituen, etxegilea izan zen, igeltseroen kontratista. Bazuen koadrila bat eta bazituen langileak. Aise bizi zen gizona”, Elosegik dioenez. Bere esanetan, alderdi errepublikanoa batez ere alderdi burgesa zen, maila sozialean besteak baino progresistagoa izan arren.

Publikatu zituen bertsoengatik ezagutzen dira bere posizio ideologikoak. Adibidez, Errepublika federalaren aldekoa zela –Elosegiren hitzetan, postura horren aldekoak ziren ezkertiarrenak alderdian–; baita 1931n EAJk abiatutako Autonomia Estatutuaren aldeko kanpainarekin kritiko agertu zela ere. Ordurako 56 urte dauzkan bertsolariak ez du begi onez ikusiko jeltzaleen eta tradizionalisten elkar hartzea, ezta proiektuak hartuko duen kutsu elizkoia ere. Gainera, Errepublika zein ahula den jabetzen da, aurrena hura sendotu behar dela sinetsita dago.

Gerrari bertsoan

1933an isildu egiten da. Elosegik uste du alderdi errepublikano barruan izandako “ezin konponduak” direla mututzearen kausa. Eta gero 1936a dator, “uztaillaren emeretzia / egun beltz ta pozoitsua”: Lopetegiri 61 urte ditu jada, gerrarako kementik ez eta frankistak Irungo atarietan. Ezin deus egin. Tropa kolpistak hirian sartu baino egun bat lehenago pasako da Hendaiara eta han hasiko da, osterara ere, bertso idazten, kraskatutako Errepublikaren gainean.

Garai honetakoa beste Lopetegiri bat da Elosegik kontatzen duenez: “Mindurik dago, baina deusek ez dio Errepublikari eta zuzentasunari dien fedea ilundu, faxisten aurkako guztiak ditu lagun, ez



Txingudiko Bertso Eskolako Bertso-tailerrean parte hartzen duten lagunak ari dira lanean Irunen, Lopetegiren izenak merezi duen lekua izan dezan.

da kontua orain alderdikeriatan hasia". Gerra garaiko bertsoak iruditzen zaizkio indartsuenak, sentituenak. Baina hor hasi zen bere amaiera ere. 1942an hilko da Arruetan (Nafarroa Beherea), sei urtez errefuxiatu gisa bizi ondoren.

Hil eta berehala sekulako isuna jarri zioten bere familiari, Elosegi gaztela-

niaz esan nahi izan zuen espresioa erabiliz, "por responsabilidades políticas". Bi etxe saldu behar izan zituzten senideek dirutza bildu ahal izateko. Hasiera besterik ez zen. Francoren 40 urteko "bakea" zetorren. Eta errepublikano izandakoentzat, isiltasuna. Antonio Zavalak Hauspoa bilduman Lopetegiri libururik

ez eskaini izana jarri du bertsolariaren inguruan urtetan izan den mututasunaren adibide gisa: "Ez dut uste bertsolari mailagatik zenik. Eta ezagutzen zuen, Txirritak Lopetegiren erretratu bat egin zuen bertsoan". Pixkanaka bada ere, isiltasuna hausteko lanean ari dira Irunen. ■

garabide
erregara

Jose Arana 13 · Eskoriatza (Gipuzkoa)
☎ 943 250 397
www.garabide.eus


txatxilipurdi

Nafarroa etorbidea, 23 / 1.
Arrasate (Gipuzkoa)
www.txatxilipurdi.com

Zure jendea, zure
hedabidea, zure iragarkia:
**JARRI PUBLIZITATEA
HEMEN**


ARGIA

943 371545 | publiz@argia.eus | www.argia.eus/tarifak


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ametsak laranja bat zaborretan dira



Saioa Ruiz



Laranja bat zaborretan

PATXI ZUBIZARRETA

Elkar, 2015

“Gure bitzta amestu baino gehiago, gure ametsi bizia ematen saiatu behar gaituk, gure ametsak bizitzen” (*Laranja bat zaborretan*, 99. orrialdean). Esaldi hau ekarri nahi izan dut, ederra izateaz gainera, ongi laburtzen duelako Patxi Zubizarretaren azkeneko eleberria, *Laranja bat zaborretan* (Elkar, 2015).

Tituluarekin bat eginez, hastapeneko para-testu gisa, *Ibrahim jauna* eta *Koranaren loreak* pelikularene aipu bat topatzen dugu, eremu pobre edo aberats batean ote gauden jakiteko zakarrontziak begiratzea besterik ez dugula dioena.

Ametsaz, laranja eta zaborraz ari garela, Karabino izeneko mutila izanen dugu hiruen arteko lotura elementua eta eleberriko protagonista. Bera bezalako pertsona batek bakarrik amestu dezake zaborretan laranja bat topatzearen luxuarekin.

Zubizarretak Kairo Zaharreko Mukattam hirira eramaten gaitu, “asto batek asfaltoan kraskatutako intxaur bat bezalako auzunera” (9. orrialdean) edo, bestela esanda, *Zabalin* esaten zaien kristau koptoen komunitatera, Karabino eta bere familiarena hain zuzen ere. Kairoko zaborra biltzeaz arduratzen dira *zabalin* deiturikoak, “jainkoaren oparia den hori” (12. orrialdean) biziraupen iturri bakarra dutelako. Determinazioa agintari den –“*Zabalin* jaio gintuan eta *zabalin* hilko gaituk”– eta esperantzarik ez dagoen –“gu zorri izateko jaio gintuan”– giro honetan hala ere, Karabinok amets bat dauka: Mukattametik Kairo Berrira alde egitea. Karabinok, gainerakoek ez duten gaitasun bat duelako

barre egiten diote bere lagunek eta zenbaitetan jo ere, ameslaritzat dutelako. Liburua-ren lehen partean bere haurtzarotik orain arteko amets bezalakoak bestea beste. Bere amets errepikakor horietako baten ondoren, Al-Qaraban Hildakoen Hirira joatea erabakitzen du eta bertan ezagutuko du Nagib ipuin kontalari itsua.

Pertsonaia honek, Jakoben hamaikagarren semea Joseren istorioa txertatzen du eleberria ahozko tradizioari lotuz. Nagib itsua-ren ipuin bakoitzaren amaieran irakurleak QR kodeak topatuko ditu, nahi izan ezker, kondairak ahots biziz entzun ahal izateko. Esperientzia guztiz gomendagarria.

Eleberri honen berezitasuna tradizio desberdinen (idatzia eta ahozkoa) lotura eta arteen arteko hibridismoa da. Zubizarretaren idazkerak, Mintxo Cemillánen ilustrazioekin lagundurik, sinbologia ezin aberatsagoa eratzen dute, Karabinoren ametsen mundua hitzez eta irudiz eskaintzen duena. ■

Patxi Zubizarreta idazle ordiziar-gasteiztarra.



» TELEGRAMA

Telebistatik egingo zaizu ezagun **Zuhaitz Gurrutxaga**, baina lehenago futbolari izandakoa da: *Futbolisto baten konfidentziak* lanean umorez kontatuko du esperientzia hori: Gasteizen maiatzaren 5ean, Principal antzokian **STOP Sacco** taldearen post-rock irundarra eta **Capsula** bilbotar-argentinarren rock psikodelikoa: Intxaurren Kultur Etxea, maiatzak 7: ez galdu **STOP FANT** Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren XXII. edizioa maiatzaren 6tik 13ra bitartean: 82 filmeko betekada itzela **STOP**

» DISKOA

Gordin eta indartsu



Joxi Ubeda



Adorez
HUMUS

Bonberenea Ekintzak, 2016

Tolosako Humus taldea bere jatorriraz itzuli da. Hiruko gisa hasi ziren, laukote gisa ere aritu izan dira, eta hiruko beazala osatu dute azken lana. Natalia (ahotsa eta baxua), Mantxi (gitarra) eta Aritz (bateria) dira taldekideak.

Beren azken diskoko kantuak oso indartsuak dira. Melodiak arretaz landu dituzte, eta doinu trinkoa, gordina, zuzena, zehatza eta sendoa gauzatu dute Karlos Osinagarekin, Bonberenea estudioan, aurtengo otsailean. Taldeak jendurreko emanaldietan transmititzen duen indarraren eta intentsitatearen ispilua da diskoa. Taldekideek dioten bezala, agertokia baita beren tokia –*Saurius* aurreko diskoarekin 40 emanalditik

gorako bira luzea egin dute eta lan berria jendurrean jotzen erakusteko irrikan daude.

Formatu polita du Humus taldearen lan berriak, doto-rea. Lau kantuz

osaturiko EP bat da, eta hamar hazbete-ko binilozko disko bat eta CD bat barne hartzen ditu. Lau kantuak binilozko diskoan eta CDan entzun daitezke. Tzesnek ederki egin die diseinu lana.

Edukia ere ederra da. Rock eta post-hardcore ukituak nabari daitezke kantuetan, baina, batez ere, kemen eta grina handiz aritu direla grabazio saioetan. *Adorez* kantuan, gainera, Glaukoma taldeko Juantxo Arakamak abesten du eta rap-metal kutsuko kantua osatu dute.

Doinuetan bezala, hitzetan gordin egiten dute gogoeta, barkamena, adorea, beldurra, besteekiko menpekotasuna eta beste hainbat sentimenduren edo egoeren gainean.

Taldeak eskarmentu handia dauka, ibilbide luzea eginga baitauka. 1998an jaio zen, eta *Adorez* lana burutu aurretik disko hauek kaleratu ditu: *Pulper* (auto-ekoizpena, 2000), *Agortzeke* (auto-ekoizpena, 2002), *Leihotik begira zai* (Bonberenea Ekintzak, 2003), *Lekua* (Bonberenea Ekintzak, 2008) eta *Saurius* (Bonberenea Ekintzak, 2013).

Natalia eta Mantxi dira gidariak. Taldeak urteotan aldaketa batzuk izan ditu partaideen artean, eta abeslaria eta gitarra-jotzailea dira hasieratik ari direnak. Entseguz entsegu, emanaldiz emanaldi, kantuz kantu eta diskoz disko beren doinua eraiki dute eta doinu hori fintzen eta hobetzen ari dira, zer egin nahi duten oso ongi baitakite. ■

Humus
talde tolosarra.



Dena, kantuaren faboretan

THE BRONTËSEN KONTZERTUA

Gasteizko Parral Tabernan eskainitako emanaldia, apirilaren 26an.



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

“Eszenatokia handitxo gelditu zaie” edo “talde hori ez da tabernetan aritzekoa” askotan esaten ditugu. Non nork jotzen duen, eta ze espazio dagoen entzuleentzat edota musikarientzat, aldea baitago. Emanaldi honen kasuan, aitortuko dizuet, The Brontësek Parralen jo behar zuela jakin nuenean, harritu egin nintzen. Hala ere, gogo berezia nuen, talde handiak leku beraientzako ustez txikietan ikustea beti egin baitzait erakargarri, jendetza bildu eta estu egongo garela jakin arren. Hirukote hau talde handitzat dut, inguruan jotzen duela dakidanean (ez baitute maizegi jotzen, entzulea ez nekatze aldera) ikusi eta entzutera joan beharrekoa. Eta beraien curriculumare ere talde handi batena da: 20 urte pasatxoko ibilbidea, 7 disko kalera-tuta, Espainiako diskoetxe indie garrantzitsuenetakoa zen Astrorekin haietako batzuk, Paco Loco ekoizle ezagunaren talde gustukoenetako bat...

Lehenengo gitarra hotsekin batera sartu ginen, eta jendetzarik ez, baina be-

teta. Soinua oso orekatua: garbi nabaritzen ziren Raul Ramaren gitarra jokoak, Iñaki Calzadaren baxuak paper garrantzitsua du taldean, eta bolumenez dotore zegoen Alvaro Larroryrekin oinarri sendoa osatuz. Izatekotan, ahotsa baju xamar, Raulek zer kantatzen zuen ulertzeko, baina bueno, diskoak daude horretarako.

Taldearen soinuari buruz hitz egiteko, nahitaezkoa da Dinosaur Jr. aipatzea. Talde estatubatuarren eragin nabarmena baitute Gasteiztarrek. Raul Ramak bakarka egindako kantuak dituzte oinarri, pop kantu klasikoak, hiruzpalau akorde, melodia dotorea, eta estribilloa batzuetan. Segur aski gitarra akustikoz sortutako kantuak, eta haiei espartzuzko jantzi rockero bat jartzea izaten da, gehienetan, taldearen lana.

Hortaz, Parral tabernako taula gainera igo zirenerako bagenekien zeren esperoan geunden. Ez genekiena zen euren zazpi lanetako zeinetatik hartuko zituzten kantuak. Gaztelaniaz kantatutako *Vender la Sombra* (2011) izan zen

galtzen atera zena, ez baitzuten bertako kanturik jo. *Que la tierra te sea levetik* (2013), berriz, *Sin Respirar* kantua bakarrik jo zuten. Eta egia esan, esker-tu nuen, gaztelaniazko diskoak galtzen atera izana, aurreko lanetan, ingelesez kantatzen dutenean, hobeto ari direla iruditzen baitzait. Hizkuntza aldaketak, Ramari abesteko modua ere aldatu diola iruditzen zait. Nire zorionerako, uda partean grabatzeko asmoa duten lan berrian, berriz ere anglofono omen datoz. Beste lanetatik berriz, ia denetatik jo zuten kanturen bat. Baita 2015ean eta sarean bakarrik kaleratu duten *Lostetik* ere.

Artifiziorik gabeko kontzertuak izaten dira hirukoarenak. Kantu eta kantu artean ia hitzik ez. Komunikazio bakarra, kantua. Eta nahikoa; zer esango dizuet. Kontzertu amaieran, giroa gorenean zegoenean, *Way to Nowhere* laneko *I Wanna Knowk* klimaxa lortu zuen. Eta horrekin, aio. Bisik ere ez: jotzeko asmoa zuten kantuak jo, eta listo

Dena, kantuaren faboretan. ■



DOS POR DOS

Hitz gezidunak

Gaia: Lapurdiko hondartzak

HUTSUNE BAT ZEHARO HARTU ----- BEHOKAK	↘	MOLDA- KAITZA ①	↘	OINARRIZKO EDARI ----- NORAT ATZIZKIA	↘	URTEKO SEIGARRREN HILA ----- ZEREZ ATZIZKIA	↘	SASOIRA HELDUA	↘	LAPUR, LITXARRERO ----- ANPEREA	↘	② AITORMENA	↘
↘		↓		↓		↓		ALTZARI HANKADUN ----- IRAKURRI ADITZAREN ERROA	→	↓		↓	
GIZONEZKO BATI HIKA ----- ③	→				DA BERARI ----- ZINKA	→		↓		ORDEZKARI IRAUN- KORREN BATZORDEA ----- PUTZILERIA	→		
↘					↓	IRAKITEKO EKINTZA ----- ATXAGAREN LAN BATEN HERRIA	→			↓			
EBAKITAKO GARIAZ EGITEN DEN SORTA	→	DEZILITRO ----- ANATIDO IZENA, ZERTZETA		OTOITZ- ORDUETAKO BAT ----- ASIAKO HE- RRITAR	→				NORBAIT ----- MANDRA- GORA	→			
↘		↓		↓	OSAGAI BAKARREKO ----- JOSTATU, ATSEGIN HARTU	→			↓		BOKALIK GABEKO URTEA ----- APURTUTA	→	
ERASOKETA ----- KONTSO- NANTE ERREPIKATUA	→				↓		UR BILA ----- SUKALDARI DONOS- TIARRA	→			↓		
↘			④ ----- MUSIKA ESTILO	→			↓						ITXURA
HAZTERI ----- HELARATU ADITZAREN ERROA	→		↓					BILOAK ----- XAKE JOKOAREN PUNTUAUAK	→				↓
↘						NOLA ----- 40	→	↓				AREA ----- ZILARRA	→
PROTEINA MOTA ----- JOAN DEN URTEA	→			BELARRON- DOKO ZAPLASTEKO ----- MEGA	→	↓				ERREPIKA- TUZ, IKARA ----- BYTE	→	↓	
↘			MULTZO	→	↓				SOKA LODIA	→	↓		

Jokoa ebazteko lagungarri
izango dituzu definizio hauek:

- ① Hendaiaiko hondartza hau Euskal Herriko luzeena da, hiru kilometro luze baita. Itsasbehera denean, ehun metro baino gehiagoko zabalera du. Politenetakoa ere bada, ezkerrialdean Hondarribia eta eskuinaldean Santa Ana



lurmuturra ikus ditzakegulako, eta haren ondoan “Dunbarriak” edo “Bi bikiak”; bi haitz handi horiek, kondairak dioenez, jentilek jaurti zituzten.

- 2 Angeluko hamaika hondartzetako bat dugu hau, izen bereko auzoan kokaturik. Amodio Ganberako hondartza eta iparraldekoen arteko trantsizioa egiten du.
- 3 Getaria eta Donibane Lohizune artean kokaturiko hondartza honetan nudismoa praktika daiteke. Naturaz gozatzeko leku aparta, Itsasbazterreko Kontserbatorioak babestutako eremua da.




- 4 Bidarteko hondartza, Biarritzekin egiten du muga. Oso egokia da surf egiteko, olatuen kalitateagatik. Hondartza honen gainean Albert de l'Espée baroiarentzat eraikitako gaztelua dago; musikazale amorratua zen baroia, eta gazteluan pertsona batek inoz izandako organorik handiena ostatatzeko aretoa eraikitzeko agindua eman zuen.

Soluzioak

[illegible]

Serge Mongeau. Gutxiagorekin urosago



Egunerokoa soiltasunarekin errimatzen dabil Serge Mongeau (Montreal, Quebec; 1937). Jestu pertsonal hori mugimendu zabal bilakarazteko xedez, *La simplicité volontaire* (Nahizko soiltasuna) izenburuko liburua argitaratu zuen 1984an. Ordutik, herritarrak hautu horretara bultzarazten dabil. Badaki ordea ez dela nahikoa. Arras pesimista da: “Gure zibilizazioaren hondamendia dator”. Desazkundearen mugimenduan edota trantsizioan dauden hirietan ikusten du aterabidea.

“Norberak bere kontsumoa bere baloreekin lerrokatu behar du”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jenofa Berhokoirigoin

Hein handiko askatasuna

“Nahizko soiltasuna obratu dut nire bizi guztian zehar. Obelixen gisara, barnera erori nintzen gaztetan eta hastapenetik, arras naturala egin zait guztia. Aspalditik dakit zer heineko askatasuna erdiesten dugun”.

1984an publikatu zenuen *Nahizko soiltasuna*.

Garaian arrakasta txikia ukan zuen. 1998an berriz argitaratu genuen; erdiespen handia ukan zuen urte horretan, prentsa inportante bateko kazetari batek artikulu luze bat eskainirik. Komunikabideen boterea ikaragarria da, damugarria da ikusiz ia denak sistemaren mantentzearen alde ari direla.

Kontsumo gutxiago, gastu gutxiago, beraz lan egiteko behar gutxiago. Horrek dakar denbora libre gehiago.

Bai, laburbilduz hori da nahizko soiltasuna. 80ko hamarkadan ez bezala, ingurumenaren gaia ezin baztertua dugu gaur egun. Segur da mugatua dugun planeta batean ezin dugula etengabea gainkontsumitzen ibili. Horri begira, aterabide gisa aurkeztua da usu. Baina arras argi dut ez dela aski. Norberak bere kontsumoa bere baloreekin lerrokatu behar du, baina, jestu indibidual hori ezinbestekoa izanik ere, ez da nahikoa.

Zer behar zaio gehitu?

Arras gudu desorekatua dugu. Alde batean enpresa indartsuak ditugu, komunikabideak eta gobernuak kontrolatzen dabiltzanak, eta beste aldean gu, herritar xumeak. Garaian autoak inposatu zizkiguten. 30eko eta 50eko hamarkaden artean, National City Lines enpresak AEBetako 45 hiri handietako tranbia konpainiak erosi zituen, autobusekin ordezkatzeko, nahitara kalitate txarreko zerbitzuak planteatuz. Automobilgintzaren sektoreko enpresek zuten sortu NCL, hots, gorpil ekoizleek, ezantza konpainiek, auto ekoizleek. Hirien antolaketa edota garraio kolektiboen zerbitzu kaskarra dela-eta, autoa hartzea behartzen gaituzte oraindik. Zaharkitze planifikatua ere hor dago. Zaharkitze artifiziala ere, urtero 500.000 dolar dira publizitaterako bideraturik. Kasik armamendurako bezainbat.

Eta parean, herritar xumeak.

Bai. Paradigma aldaketa ekarriko duen mugimendu masibo bat ezinbestekoa dugu. Horretarako abiatu genuen desaz-



Bizikletaz mugitzen da beti Serge Mongeau. "80ko hamarkadan ez bezala, ingurumenaren gaia ezin baztertua dugu gaur egun. Segur da mugatua dugun planeta batean ezin dugula etengabea gaikontsumitzen ibili".

kundearen mugimendua 70eko hamarkadan. Bost zutabetan oinarritzen da azken hori: demokrazia, erabakitze eskubidea berreskuratu behar dugulako; kolektiboa, beharrei taldean erantzun behar diegulako; tokian tokikoa, autonomo izan behar garelako; justizia soziala, ezin dugulako injustiziarekin jarraitu; eta soiltasuna, kontsumo batzuk alde batera utzi beharko ditugulako.

Nola bultzatu paradigma aldaketa hori?

Hiru mailatan eraginez. Bat: maila indibidualean. Nahikoa ez bada ere, biziki inportantea da, jendarte berria gauzatzeko gaitzazalako. Auzo mailan: demokrazia gauzatzeko komunitate ttikiak behar ditugu, geroa ez da megapoloetan kausitzen. Hirugarrenik, politikan. Aldaketarako nahikeri politikoa beharrezkoa da. Azken hori zentzu onera bideratzeko gisan. Politikan inplikatu behar dugu.

Argi gelditzen ari da finantzak duela politika gidatzen.

Bai, arrazoi, gobernuak finantzaren

menpe dira geroz eta gehiago, eta indarrez ahulduz doaz.

Paradigma aldaketa nekez gertatuko da horrela.

Epe luzerako lana eraman behar dugu, alderdi politikoak eraldatzeko helburuarekin. Une berean, neurri zentzugabeen kontrako borrokarekin segitu behar dugu. Konparazioa, petrolio-hodien aurkako mugimendua eraman behar dugu absolutuki Quebecen.

Berant izan baino lehen lortuko dugu?

Oso pesimista naiz, edo hobeki erranda, errealista. COP21 gailurrari begiratzen badiogu, argi da gobernuak ez dituztela behar liratekeen neurriak hartu nahi. Orokorki herritarrek ere ez dute beste bizimodu bat hartu nahi. Gorpil zoro batean gara, azkenean kontsumo xede bera dutelako biek. Kapitalismoa berdatzen saiatzen dira, baina ez dela aterabidea! Izan autoa eraikitze ala elektrika ekoizteko orduan, auto elektriko batek berdin kutsatuko du. Hauturik ez dugularik ukanen, orduan ihardukiko dugu.

Hots, berant izanen denean...

Bai, hori da. Maleruski, miliarka jendek sufituko dute eta behartsuak dira lehenik hunkiak izanen. Ondorioak jada sendi dituzte hainbat herritarrek. 2050erako itsasoaren heina metro batez emendatuko dela aurreikusten da; hori horrela, 600 milioi jende dira haien bizitokitik haizatuak izanen, muturreko arriskutik ihesi. Gure zibilizazioaren hondamendia dator eta abiadura bizian goaz harengana. Errotikako neurriak hartu behar lirateke, baina ez dirudi hartzekotan garenik.

Trantsizioan dauden hirien sarean ere bazabiltza.

Indibidualki argi da ez dugula biziraunen, kolektiboki eta autonomoki antolaturiko komunitateek dute biziraunen. Gobernuen gelditasuna ikusirik, haien geroa haien eskuetan hartzen duten hiriak dira sare horretan. Hondamendira eramaten gaituztenen partetik ezin ditugu aterabideak itxoin. ■



Gipuzko_ko Foru_Idundiren publizit_te murrizket_del_-et_, Ber_nduegi_urrer_ntze_n "A" letr_g_be

M_rkel Ol_no buru duen Gipuzko_ko Foru_Idundi_k ir_g_rri du eusk_r_zko-komunik_bideet_ko publizit_te instituzion_l_erdir_j_itsiko duel_. Neurri_k kez_k_er_gin du Ber_nduegiren erred_kzio_n. Biler_egin ondoren er_b_ki gogor bez_in ezinbesteko b_t_h_rtu beh_r iz_n du k_zet_honek: "a" hizki_murriztuko dugu gure testuet_tik, i_inoiz ez er_biltzer_ino. Neurri horri esker, kostu_k gutxitze espero dugu (denok d_kigu zein g_resti_den_lf_betoko lehen hizki_er_biltze_). B_d_kigu jende_k diferentzi_n_b_rituko duel_. Espero dugu ger_tzen z_izkigun beste letr_k ez murriztu beh_r iz_tea, bestel_l_ster ez dugu j_kingo noiz id_zten dugun M_rkel eta noiz Mikel.



Estatu Islamikoko horiek nola tratatu irakatsiko dute EHU (m)-ren udako ikastaroetan

Estatu Islamikoaren aurkako gerrak Espainiako Estatuan, Europar Batasunean, munduan eta Bilboko beste auzo batzuetan zer nolako eragina izango duen aztertzea izango du xede EHUren udako ikastaroetako batek. Chuck Norris eta Ramboren ezezkoa jaso ostean, besteak beste Carlos Gómez Arruche Espainiako Aireko armadako teniente jeneral eta Guardia Zibileko zuzendari ohia deitu diote ikastaroa emateko.

Lehiaketa: asma ezazue aurreko esaldiaren zein zati den geuk asmatua eta zein ez, eta bidali erantzuna egunotako batean zabalduko dugun posta kutxatilara. (Aztarna bat: Rambo ez da existitzen).

Irail aldean egingo dute ikastaroa, Donostiako Miramar Jauregiko marko konparaziyo gabekuan. Agidanez izena eman dute dagoeneko Arabako campusa Alepoko erdigunearen gisan utzi duten gazte ipurterreek.



Prentsa ohar batean, EHUK adierazi du "udako ikastaroen xedea bertan parte hartzen dutenei munduan behar bezala

ibili ahal izateko armak eskaintzea" dela, eta, zer nahi duzue ba esatea, amiñi bat uzkurto zaigu azpitartea.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA
EUSKALTZALETASUNA

Ekonomia Soziala

ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilerro ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Ekonomia Sozialean oinarritutako enpresa gara. Langileok gara jabeak eta egitura horizontala eta parte hartzailea dugu. Eragiten jarraitzeko, komunitatea indartu eta kolektiboki jardun nahi dugu, ARGIA osatzen dugun guztion elkartetik eta inplikaziotik abiatuta.

MAIATZEKO ZOZKETAK



LANKI ikertegiko materiala
(5 saski)

Lanki
lanki.coop



Ondarroako Arrigorri ostatuan
egonaldia 2 pertsonarentzat

Arrigorri
arrigorri.eus



Dabilen harriari goroldiorik ez
(5 liburu)

Joxemi Zumalabe
joxemizumalabe.eus



REAS (Ekonomia alternatiboa eta
solidarioaren sarea) (2 saski)

REAS
www.economiasolidaria.org

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

1966 | GAUR KONSTELAZIOAK | 2016

Gaur Taldea eta Barandiaran Galeria | Kairós garaikidea



GAUR

BASTERRETXEA | ZUMETA | BALERDI | MENDIBURU
AMABLE | OTEIZA | SISTIAGA | CHILLIDA

KAIRÓS

BADIOLA | FAJFRIC | GOLDSCHMIED & CHIARI |
JAIO + VAN GORKUM | PSJM | ORTIZ | SALA | VIEITES

ERAKUSKETA

2016-1-23 / 2016-5-15

#GaurKonstelazioak

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza 1, Donostia / San Sebastián
www.santelmomuseoa.com | [@santelmomuseo](https://twitter.com/santelmomuseo)

AZKEN EGUNAK

ANTOLATZAILEAK:

STM
San Telmo Museoa



donostiakultura.com



BABESTEN DU :



PATRONO PRIBATUAK:



EL DIARIO VASCO



ERAKUNDE BABESLEAK :



ENPRESA ONGILEAK :



berria

naiz:

